

## Kirola

Nazioarteko Judo Txapelketak 530 gazte batuko ditu bihar, Durangoko Landako kiroldegian > 16



## Iazko soberakinagaz ordainduko dute Zaldibarko haurreskolako proiektua > 6

800.000 euro eskolarako proiektura bideratzeko moduan dituztela azaldu du Arantza Baigorri alkateak

Iazko aurrekontuen likidazioa eginda, eta "udalaren dirua berreskuratzeko lan handia egin eta gero", udala 800.000 euro haurreskolaren proiektura bideratzeko moduan dagoela azaldu du Arantza Baigorri (Bildu) alkateak.

Enpresek udalari zor zioten dirua da soberakinekoa, Aitor Arizmendiarrrieta zinegotziaren berbetan. Haurreskola berrriaren, urte biko umeentzako eraikinaren eta biomasa galdararen lanak irail aurretik amaitu gura ditu udalak.

## Elorrioko gaztetxea, 25 urte eta hazten

Mende laurden bete duen honetan, urteurren festa antolatu dute Gaztetxean, biharko. 25 urte hauetan bertatik pasatu diren herritarrek batu gura dituzte > 3



## 8. Aukera Azoka



### Ordutegia

Barikua  
11:00-14:00  
17:00-21:00

Zapatua  
10:00-14:00  
17:00-21:00

Domeka  
11:00-14:00  
17:00-19:00



masdendak



### Berriz > 2

Bilduk merkataritza bultzatu gura du zinegotzien dietekin

### Durangaldea > 2

Greba mugagabeari ekingo diote MZn, martxoaren 4an

### Izurtza > 6

Autobus markesina lekuz aldatzeko eskatu du Aldundiak

### Iurreta > 2

Betelekurako baimena balio gabe uzteko bidean da udala

# Herririk herri

> BERRIZ

## Bilduk merkataritza bultzatu gura du zinegotzien dietekin

Zinegotzietan dagozkien dieten erdia herriko proiektuetara bideratzen dihardutela diote

> JONE GUENETXEA

Bilduk herriko merkataritza indartzeko proiektua aurkeztu du Berrizko Merkataritza Elkarteagaz (BME). Herriko dendetan erosketa bat egiterakoan, zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute kontsumitzaileek. Proiektu honetan parte hartu

Erosketak egiterakoan, kontsumitzaileek zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute

gura duen komertzio bakoitzak txartel batzuk izango ditu bezeroen artean banatzeko. Txartel saridun bat tokatuz gero, bezeroari txartelean markatuta egongo den kantitatea deskontatuko zaio Berrizko komertzio batean erosketa bat egiten duen hurrengo aldian. Kanpainaren bukaeran, Bilduk dendariei diru hori guztia itzuliko diela azaldu dute.

**Zinegotzien dietak**

Berrizko Bilduko ordezkariek adierazi dutenez, "hasieratik kritikatu dugu Berrizko Udalak hilero ordaintzen dituen dietak



Xabi Zaldua, Maite Lopez, Josu Albizuri eta Leire Huerta Bilduko zinegotziak, eta erdian, Marisatur Blanca BMEko presidentea.

larregizkoak direla; 480 euro hilean, batzordean parte hartu edo hartu ez". Gaineratu dutenez, kopuru hori erdira jaisteko eskatu dute behin baino gehiagotan, eta aurtengo aurrekontuetan ere aldaketak egon dira kargu

politikoen dieten inguruan. Legegintzaldi hasieratik, Bilduko zinegotzien dieten erdia "beharrezko" deritzoten herri-proiektuetara bideratzen dihardutela diote: "konpostajerako, asteburuuetako umeentzako ludote-

karako, eta orain, merkataritza bultzatzeko proiekturako". Ekinenaren helburua da berriztarrek herriko komertzio txiki-ekiko fideltasuna izatea: "Eta bide batez, gehiegizkoak diren dieten zati bat herritarrei bideratzea".

## Zortzi hilabeteko kartzela zigorra eta 600 euroko isuna

Mendezek Espainiako printze-printzesaren bisita batean monarkiaren kontrako oihuak egin zituen

> JONE GUENETXEA

Bilboko epaitegi batek zortzi hilabeteko kartzela zigorra betetzera eta 600 euroko isuna ordaintzera kondenatu du Koldo Mendez Berrizko PSE-EEko zinegotzi ohia. 2010 urteko maiatzaren 26an, Espainiako printze-printzesak Bilbora egindako bisita batean, Mendezek monarkiaren aurkako oihuak egin zizkien, eta Ertzaintzak atxilotu egin zuen.

Koldo Mendezek epaia "adarjotzea" dela azaldu du. Errepublikaren aldeko eta monarkiaren aurkako adierazpenak "jende askok" pentsatzen

dituela gaineratu du, eta berak ozen esan zituela. Esandako guztia berresten duela azaldu du. Epaitegiek Mendezin inputatzen diotena baina, ez dago monarkiari zuzendutako adierazpenekin lotuta. Monarkiaren aurkako oihuen ostean, Ertzaintzak atxilotu zuenean aginteari men ez egitea egotzi zioten. Mendezek berriz, Ertzaintzak "kolpatu" egin zuela dio, "Rodolfo Aresen agindutara". Mendezek aurrekari penalik ez duenez, ez da kartzelara joango. Gaur egun, langile autonomoen UPTA sindikatuak idazkari nagusia da.



Koldo Mendez, Berrizko PSE-EEko zinegotzi ohia da.

> DURANGALDEA

## Greba mugagabea Mendiguren y Zarrauan

> AITZIBER BASAURI

Langileei soldata %15 jaitsiko diela iragarri du Berrizen eta Abadiñon lantegiak dauzkan Mendiguren y Zarraua enpresako zuzendaritzak. Erabaki hori "bidegabea eta gehiegizkoa" dela iritzita, greba mugagabea hasiko dute martxoaren 4an langileek.

Martxoaren 4an ekingo diote greba mugagabeari Mendiguren y Zarrauan

Joan zen astean egin zuten greba deialdiaren inguruko batzarra, eta langileen gehiengo zabal batek babestu zuen greba mugagabea hastea. Martxoaren 4an ekingo diote grebari. Greba horregaz, enpresak "soldata jaitsiera bertan behera utz dezala, eta zuzendaritzak lan erreformaren eragina geratuko duen enpresa hitzarmena negoziatzeko konpromisoa" eskatuko diote zuzendaritzari, ELA sindikatuak jakitera eman duenez.

> IURRETA

## Betelekurako baimena balio gabe uzteko bidean

Goiuriko betelekurako obra eta jarduera baimena balio gabe uzteko prozedura hasiko dute

> AITZIBER BASAURI

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetzeko 2010ean emandako jarduera eta obra lizentzia balio barik uzteko prozedura hasi beharko du udalak. Horrela azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak udalbatzarrean, Bilduk Asturiasko Justizia Auzitegi Gorenaren sententziagaitik galdetuta.

Ibarbideak lurrez betetzeko Jaurlearitzak emandako baimena balio gabetu du epaite-

gi horrek, Goiuriko Kofradiak eta auzokide batek aurkeztutako salaketak aintzat hartuta; horrenbestez, 2007tik aurrera emandako baimenak balio gabe utzi ditu. Alkateak berretsi du baimen guztiak zituelako eman ziotela lizentzia Luku-Baso enpresari.

Udalaren erabakiaren aurka prozedura administratiiboak daude zabalik Bilboko 2. eta 5. epaitegian. Horren harira ere, erabaki bat hartu behar dute.

> MAÑARIA

## Umeek herrian hartuko dute Korrika

> A.U.

Udalak gutuna bidali du inguruko ikastetxeetara, Korrika herritik pasatzen den egunean Mañariko umeek bertan egin ahal izatea baimentzeko.

Era horretan, umeek herrian bertan hartu ahal izango dute Korrika 18. Mañarian 13:30ean sartuko da, martxoaren 20an.

Udalak honako hau proposatu du: parte hartu gura duten umeak autobusez batuko ditu, eta eskola orduak amaitu artean, tailerrak eta antzeko ekitaldiak eskainiko ditu umeentzat. Ordu horietan, udala egingo da umeen kargu.

**> ELORRIO**

# 25. urtemugako jaia, Gaztetxearen historia hazten jarraitzeko

Gaztetxeak urteurren festa antolatu du biharko; bertatik pasatu diren herritarrak batu gura dituzte

**> MARKEL ONAINDIA**

“Jai erraldoia izatea gura dugu”. Berba horiekin azaldu dute Elorrioko Gaztetxeako kideek biharko eratu duten urteurren festa. 25 urte bete ditu Gaztetxeak, eta urteotan bertatik pasatu diren herritar guztiak batu gura dituzte data berezi hori ospatzeko. Horietako askorekin batzarrak egin dituzte azken asteetan, bakoitzak bizitakoa batu eta gaur egungo egoeraz berba

lotura hori eten egin zen, eta autogestioan sakontzen hasi ziren gazteak. Asanbladen funtzionamendua martxan ipini zuten, eta Jarrai, Kemen edota EMK lako taldeek ere parte hartzen zuten batzarretan. Logoa sortu, eraikina atondu, eta urte bereko karnabaletan zabaldu zuten Gaztetxea herriaren aurrean.

**Urte gogorak**

Maila politiko eta sozialean sasoi gogorra izan zen Gaztetxearen sorrerakoa. Borroka eta elkartasun dinamiken bilgune izan zen: intsumisioa, presoan aldeko ekimenak...

Gaztetxeako kideek adierazi dutenez, 1991 eta 1992 urteen artean itxita egon zen sei hilabetez. Drogen kontsumoak eta jende faltak eragin ei zuten egoera hori. Gero, koadrilaka ere antolatu ziren denboraldi batez.

Arazoak arazo, Gaztetxeak bizirik dirau. Alternatiba sozial eta kultural legez ikusten dute, eta gazteei ere ekarpena egiten diela uste dute: “Pertsona bezala hazteko beste modu bat eskaintzen du”. 25 urte bete, eta hazten jarraitzeko asmoa daukate.

Maila politiko eta sozialean sasoi gogorra izan zen Gaztetxearen sorrerakoa

egiteko. Ibilbide gora-beheratsua izan dela diote, baina argi daukate Gaztetxearen beharri-zana egon dela eta badagoela.

1988ko urtarrilean okupatu zuten hainbat gaztek Iturri eraikina. Okupazio horrekin, gainera, herriko hainbat taldek hartu zuen bere lekua Iturrin. Handik gutxira udalagaz obretarako akordio batera heldu arren, gero



Gaztetxearen sorrerako asanblada bat goiko irudian; 1998ko Gazte Eguna behekoan.

## Sasoi gaitzen gaineratik, etorkizunean ere herrian eragilea izan guran

Gaztetxearen egoera ez dela onena diote, baina eragiteko esperantza daukate

*Sasoi gaitzak lantzean behin, baña ipoñak ernegau eraingo dau ondio.* Hori da Gaztetxeak urtemugaren testuinguruan kaleratu duen leloa. Gaztetxearen egoera onena ez dela dio-

Bizi ohiturak ikusita, Gaztetxea mantentzea meritua dela uste dute

te kideek, baina oraindik eragiteko eta mugitzeko esperantza daukate. “Azkeneko urteetan gainbehera bat egon da. Gainera, belaunaldi pilo baten hutsunea dago”. Hala eta guztiz ere,

eta gizartearen tendentziak eta gaur egungo bizi ohiturak ikusita, Gaztetxea mantentzea meritua dela uste dute. Izan ere, Durangaldeko zein Euskal Herriko gaztetxe askoren egoera ere eskasa dela adierazi dute.

Gazteen aisialdian, aldaketa handia ekarri du azken urteetan gazte-lokal pribatuen agerpenak. Horrek, eragina eduki du gaztetxeetan. Baina, eremu bien

Biharko prestatu duten jaialdiagaz ere mugimendua aktibatuko dela espero dute gazteek

uztartzean egon ahal da bidea: “Orain lokala daukaten batzuk ere etortzen hasi dira”, diote elorriarrek. Azken boladan belaunaldi berri bat hasi da egunero bizitzan parte hartzen. Horretaz gainera, biharko prestatu duten egun osoko jaialdiagaz ere mugimendua aktibatuko dela itxaroten dute gazteek.

**EGITARAUA**

**11:00-14:00.** Umeentzako jolasak  
**13:00.** Antzerkia Karrikagaz  
**13:00.** Egunari harrera  
**14:00.** Familia argazkia plazan  
**15:00.** Bazkaria kiroldegian. Ostean, Pez Kao antzerkia.  
**18:00.** Kalejira eta ekitaldia  
**19:30.** Kontzertu akustikoa Gaztetxean: Kokein, Txabolakumeak eta Gorantz Erori Proiektua. Mapping ikuskizuna Logela multimedia & Summun art.  
**22:30.** Kontzertuak karpan: Willis Drummond, Iheskide eta Ze Esatek!. Ostean, Dj Bull.

**ZUZENKETA**

Duela aste biko Anboto astekarrian, 489. alean, akats bat egon zen. Elorriogaz lotutako ‘Euskara biziberritzeko, erabileran sakonduko dute’ albistean, hain zuzen ere. Maite Peñacoba ez da Bilduko zinegotzia, EAJkoa baizik.



**> DURANGO**

# Ezindu psikikoek eguneko zentro berria izango dute

Udalak 500 metro karratuko lokal bat utziko dio Aldundiari Errotaritxuenae

**> MARKEL ONAINDIA**

Minusbaliotasun intelektuala daukatenentzako eguneko zentroa Durangon zabalduko du Aldundiak. Iazko aurrekontuetan egitasmoa egitea aurreikusi zuten, baina ez zuten zehaztu Durangaldeko zer herritan egongo zen. Proiektua aste honetan hasi da errealitate bihurtzen. Izan ere, Durangoko Udalak Aldundiagaz lotu beharreko hitzar-

ko elkarte baten bidez gestionatu ahal izango du zerbitzu hori, eta 30 bat lagunentzako lekua edukiko du. Geu Be elkartearen aspaldiko eskaera izan da eskualdean eguneko zentroa sortzearena.

Martitzeneko udalbatzarrean onartu zen hitzarmentaren zirriborroa. Guztiek aipatu zuten zentroaren beharrezan. Baina,

Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek kritikatu zuten prentsatik eza-gutu dutela egitasmoa, eta ekarpenak egiteko aukerarik ez dutela eduki. Horregatik, Bilduk kontra bozkatu zuen, eta Aralar abstenitu egin zen. EAJk esan zuen batzordean landu izan dela, eta ekarpenetarako aukera egon izan dela.

Eraikina egokitzeko obrak Aldundiaren esku geratuko dira, bai eta bertako zerbitzua ere



Errotaritxuenako babeseko etxeen azpian egokituko dute eguneko zentroa.

menaren zirriborroa onartu du. Akordio horren arabera, udalak Errotaritxuenako babeseko etxeetan daukan 500 metro karratuko lokal bat utziko dio Aldundiari datozen 50 urteetarako. Eraikina egokitzeko obrak Aldundiaren esku geratuko dira, bai eta bertako zerbitzua ere. Zuzenean edota irabazi asmo ba-

## 18.000 bisitaritik gora itxaroten dituzte Aukera Azokan, asteburuan

30 komertziok beraien produktuak preziorik onenetan jarriko dituzte salgai, Landako Gunean

**> AITZIBER BASAURI**

Dendak Bai elkarteak antolatutako 8. Aukera Azokak gaur eguerdian zabalduko ditu ateak. Durangaldeko 30 komertziok askotariko produktuak jarriko dituzte

salgai domekara bitartean. Arropak, oinetakoak, osagarriak, dekorazioa, jakiak eta beste hainbat produktu prezio onean erosteko aukera eskainiko dute. Dendak bai elkarteak izen eta irudi berria

aurkezteko baliatuko du ekimena. Nobedade moduan, aurtun liburua denda batek eta gozo denda batek standak jarriko dituzte.

**Bisitari ugari**

Iazko aukera azokak 18.000 bisitari jaso zituen. Guztira, 12.000 salmenta egin zirela gaineratu dute. Krisi sasoiaren gauden arren, iazko datuetara heltzea aurreikusiten dute.

Bestelako nobedaderik ere egongo da. Umeen orgak gordetzeko, zaindutako leku bat egokituko dute antolatzaileek. Gaur, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik Aukera Azoka. Zapatuan, 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara.

Erosketak egiterakoan, bisitariak aparkalekua izango dute dohanik ordu bian. Horrez gain, 153 opari egingo dituzte zotz: tartean, erosketa egiteko telazko 100 orga, autorako 50 itzalkin, otzara bat eta e-book bi egingo dituzte zotz. Gainera, hamar eurotik gorako erosketa txartela erakusten duten bisitariak +Dendak-eko hanburgesa bat dastatzeko aukera izango dute; baita Durango Txartela erakusten dutenek ere. Umeentzako ekitaldiak ere antolatuko dituzte.



Iazko Aukera Azokan ateratako argazkia.



Durangoko Udaleko eta Gurutze Gorriko kideak Lagunkideren aurkezpenean.

## Bakarrik sentitzen diren adinekoei laguntzeko, bolondresen programa

Lagunkideko bolondresak adinekoei laguntza erregularra zein noizbehinkakoa eman gura diete

**> M.O.**

Udalak eta Gurutze Gorriak Lagunkide programa aurkeztu dute. Adinekoei laguntza erregularra edota noizbehinkakoa emango dieten herritarrak behar dituzte horretarako. Adinekoen partetik eskaera dagoela adierazi dute.

Durangon, 75 urtetik gorako 2.448 lagun daude. Horietatik, 620 inguru bakarrik bizi dira. Udalak egindako azterketa bateko datuak dira horiek. Azterketa horretan, adinekoek laguntzaileak edukitzea eskatu zieten udaleko beharginei. Eta, eskaera horri erantzuna eman dio udalak: Lagunkide progra-

ma sortu du. Adinekoei laguntzeko bolondresak topatzen da bitza.

Goiztidi Diaz alkateordearen arabera, herritarren laguntzak ekarpen garrantzitsua egin dezake: "Bizi-kalitatea hobetzea eta bakardadea ekiditea dira helburuak. Bakardadeak, galera kognitibo eta intelektuala errazten du". Gurutze Gorriko Manu Calvok dioenez, ordu gutxi Lana eskatuko diete bolondresei. Atal bitan banatu dute zerbitzua: erregularrak eta noizbehinkakoak. Dagoeneko ia dozena bat lagun apuntatu dira esan dute. (94 465 74 51 / [adintek@durango-udala.net](mailto:adintek@durango-udala.net))

## Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, 70 eragileren iritziagaz

Esaterako, kirol entrenamenduetan eta eskolaz kanpo euskararen erabilera indartu gura dute

**> M.O.**

Udalak badauka 2017ra arteko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Euskararen Aholku Batzordearen barruan diagnostikoa egin zuten lehenengo, eta 70 eragileren partaidetza eduki zuten horretarako. Guztira, sei batzar egin zituzten. Planaren zirriborroa egin zuten gero, eta EABtik eta euskara batzorde-

tik pasatu ostean, martitzenean onartu zen udalbatzarrean. Guztiek egin zuten alde, PPrentzabentzia kenduta.

Planak hainbat ekintza jasotzen ditu. Esaterako, eskolaz kanpo eta kirol entrenamenduetan erabilera indartzea. Tokiko hedabideetan euskararen presentzia handiagotzea gura dute, eta dirulaguntzak emango dituzte horretarako.

Bestalde, udal barneko araudi berria ere onartu dute. Herritarrak eskatzen ez badu, gaztelaniaz beharrean, euskara hutsan egin beharko diote beharginek. Derrigorra ez den arren, beharginen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimen bat ere martxan ipiniko dute.

Martitzenean onartu zen; guztiek egin zuten alde, PPrentzabentzia kenduta

# “Epaitegien bidean azkenera arte heltzeko asmoa dut”

Urionabarrenetxea alargun geratu eta gero, alargun pentsioa jasotzeko borrokan dabil

## >AMAIA UGALDE

Miren Urionabarrenetxeak alargun pentsioa jasotzeko bide judizialari ekin dio. 2012ko urrian senarra hil zitzaion, gaixotasun baten ondorioz. Ume bigaz, izatezko bikotea ziren. Gizarte Segurantzak alargun pentsiorik ez dagokiola erantzun dio.

## Zer erantzun jaso duzu Gizarte Segurantzaren aldetik?

Gizarte Segurantzak bere erantzunean azaltzen duenez, ez dagokit alargun pentsiorik. Baina, ematen didaten arrazoia ez da izatezko bikotea izatea. Abenduaren 4ko 40/2007ko Legeak izatezko bikoteen gaia erregulatzen du. Lege horretako klausula batean oinarritzen dute erabakia. Senarra hil aurreko urtean lanean ibili naizenez, horixe argudiatzen dute alargun pentsioa ez emateko.

## Erantzun horren aurrean, zer iritzi duzu?

Klausula hori guztiz bidebakoa dela deritzot. Bihar bertan langabezian geratzen banaiz, ez dagokit pentsiorik, baina ia lan barik egon izan banintz, bai. Ez

dauka ezelako zentzurik. Beste edozein alarguni moduan tratatzea eskatzen dut. Eskubide berberekin.

## Beste baldintza batzuk ere badaude izatezko bikoteen kasuan, ezta?

Bai, klausula ekonomiko honez gainera, baldintzetako beste bat da bost urtez izatezko bikotea izatea. Ezkonduta daudenen kasuan, berriz, ezkondu eta hurrengo egunean bikotekidea hilez gero, pentsioa jasotzeko eskubidea dago. Beste pertsona batekin ezkonduta ez egotea eta bestelako baldintza batzuk ere aurreikusten dira.

## Bide judizialera jo duzu orain.

Bilboko Gizarte arloko gaien epaitegian judizioa izango dut urriaren 15ean. Oso argi daukat alargun pentsioa jasotzeko eskubidea dudala, eta klausula ekonomiko hori bidebakoa dela, beraz, epaitegien bidean azkenera arte heltzeko asmoa dut. Niretzat ez bada ere, atzetik datozenentzat balio dezake borroka honek.

## Arartekoan zure kasua azaldu duzu. Zer erantzun jaso duzu?

Arartekoari nire egoera azaldu nion. Hala ere, auzia Gizarte Segurantzarekin denez, Arartekoak erantzun dit bere esku-mena Euskal Autonomia Erke-degoko administraziora mugatzen dela. Beraz, *Defensor del Pueblo* delakoari nire eskaera bidali dio, eta hark ere kasuaren berri izan duela azaldu dit gutun batean.

Orain dela gutxi komunikabideek ezagutzera eman dutenez, seme-alaba bako izatezko bikoteek alargun pentsioa izatea bermatzen duen epai bat eman du Auzitegi Konstituzionalak.

Komunikabideetan irakurri dudanaren arabera, klausula hori diskriminatzailetzat jo du Konstituzionalak, eta alargun pentsioa ematea erabaki dute. Hala eta guztiz ere, komunikabideetan gai hau lantzen denean, inork ez du letra txikiaren berri ematen. Kasu horretan, bikotekidea lanean ibili bada hil aurreko urtean, nire egoera berean egongo litzateke.



Urionabarrenetxea durangarra da, baina Izurtzan bizi da.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“ENPRESARI LOTUTAKO IKASKETEK NIRE LAN MUNDURATZEA ASKO ERRAZTU DUTE.”

Iratxe Trevejo, Ingeniaritza Informatikoan graduatua eta MUko langilea.



PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI · MARTXOAK 16 larunbata, 10:30

ARRASATE · MARTXOAK 21 osteguna, 17:30

Enpresagintza Fakultatea

BILBAO, Bilbao Lab · MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

OÑATI · MARTXOAK 9 larunbata, 11:00

BIDASOA · MARTXOAK 16 larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA · MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

ARETXABAETA · MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 16 larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN · ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436  
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST



“

*Bihar langabezian geratzen banaiz, ez dagokit pentsiorik. Baina, senarra hil aurreko urtean lan barik banengo, bai”*

“

*Komunikabideetan gai hau lantzen denean, inork ez du letra txikiaren berri ematen”*

**> DURANGO**

## Berbaro elkarteak 'Itzarri' saria jaso du

Koikili Lertxundiren eskutik jaso dute Euskal Coaching 2013 saria, Bilboko Alhondegian

**> JONE GUENETXEA**

Bilboko Alhondegiko Bastida aretoan banatu zituzten, joan zen eguenean, *Itzarri Sariak 2013*. Maider Uribe Berbaroko presidenteordeak, Maite Berriozabal kudeatzaileak eta Fernan Ruiz euskara teknikariak Koikili Lertxundiren eskutik jaso zuten

'Futbola eta saskibaloia oinarritik euskaraz' proiektua bultzatzeagatik jaso du aitoren hori

**Euskal Coaching 2013 saria.**

*Futbola eta saskibaloia oinarritik euskaraz* proiektua bultzatzeagatik jaso du Berbarok aitoren hori. Ume eta gazteen arloan, kirola praktikatzeko hastean entrenatzaileek eskolak euskaraz emateko gaitasuna izatea da helburua. Ikastaroen alde teoriko eta praktikoa dituzte. Futbolearen proiektua martxan jartzen den hirugarren urtea izango da. Saskibaloian aurrelanean dihardute, datorren ikasturtean martxan jartzeko.

Herri Torrontegik *Good Job* saria jaso zuen, eta Cabelec Elektronikak *Besteam* saria.



Bilboko Alhondegian saritu guztiekin ateratako argazkia.

**> IZURTZA**

## Botika ondoko geltokiko markesina lekuz aldatzeko eskatu du Aldundiak

Dagoen lekuan arriskutsu ei dago; udalak dio autobusa bide erdian geratzea arriskutsuagoa dela

**> JOSEBA DERTEANO**

Bizkaiko Foru Aldundiak botika ondoan dagoen autobus geltokiko markesina kentzeko edo lekuz aldatzeko eskatu dio udalari. Dagoen tokian bidetik ger-

tu eta arriskutsu dagoela diote, eta sarreran babeserako piboteak ere behar dituela. Udalak erantzun dio dagoeneko Aldundiari, erabakia berriz planteatu dezan eskatuz: "Geltokia




Semaforoak oinarrian duen egiturak ere babes moduan balio du, udalaren ustez.

**> ZALDIBAR**

## Soberakinagaz ordainduko dute eskolarako proiektua

Udalaren iazko soberakinagaz ordainduko dute haurreskola berria



Aitor Arizmendiarieta zinegotziak, Arantza Baigorri alkateak, eta Rafa Urizar zinegotziak eman dute prentsaurrekoa.

**> ITSASO ESTEBAN**

"Azken hilabeteak proiektu hau aurrera atera nahian eman ditugu, eta zorionez, udalak badaurka eskolaren proiektua aurten garatzeko dirua", iragarri du Arantza Baigorri alkateak.

Lanen hasiera atzeratu duten hainbat gertakariren ostean, proiektua udalaren iazko aurrekontuaren soberakinagaz ordainduko dutela azaldu dute Bilduko ordezkariak. Iazko aurre-

kontuaren likidazioa eginda, eta "udalaren dirua berreskuratze-ko lan handia egin eta gero", 800.000 euro proiektu honetara bideratzeko moduan dagoela azaldu du gobernuko taldeak. Arizmendiarieta zinegotziak gaineratu duenez, "enpresek udalari zor zioten dirua da soberakinagaz batutakoa". Haurreskola berriaren, urteko biko umeentzako eraikinaren, eta biomasa-ko galdara berriaren lanak irai-

lerako amaituta edukitzea gura du udalak. Horrela, lan batzuk ahal bezain laster hasiko dituzte, eta umeen udako oporretan burutuko dute "obra handiena".

Urgari enpresaren Ederto proiektua berrartu, eta berori gauzatuko duen enpresaren esleipen prozesua abiatuko dute berriro. Dena dela, proiektuan aldaketa bat egingo dutela aurreratuko du gobernuko: lau gela barik, hiru izango ditu.

**> OTXANDIO**

## Iñaki Pujana libre geratu da, 27 urte preso egon ondoren

**> JOSEBA DERTEANO**

27 urte kartzelan eman ondoren, joan zen asteko eguenean aske geratu zen Iñaki Pujana otxandiarra. Bariku goizean ailegatu zen Otxandiora, eta ondoetorri ekitaldia egin zioten. Martxoaren 9an, 13:00etan, beste ondoetorri ekitaldi bat egingo diote. Txalapartariak eta bertsolariak izango dira bertan, eta herriko hainbat kultur eta kirol taldek oroigarri bana emaniko diote Pujanari. Ondoren, bazkari herrikoian batuko dira Mainondo eskolako gimnasioan. Bazkalostean, giroa alaitzeko dantzaldia izango dute.

Iñaki Pujana 1986ko abuztuan atxilotu zuen Frantziako polizia. La Sante kartzelan egon ostean, 1991n Espainiara estraditatu zuten. Harrezkero, Espainiako hainbat kartzelatan egon da.

**> MALLABIA**

## Bideo-foruma emakumeen nazioarteko eguna dela-eta

**> JONE GUENETXEA**

Nahikari emakume taldeak zine-foruma antolatu du martxoaren 8 arratsalderako, 17:30ean, Kultur Etxean. *La fuente de las mujeres* filma eman ostean, Murgibeko kide batek solasaldia gidatuko du.

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan, udal liburategiak irakurketa gida argitaratuko du. Helduentzako fikziozko liburuak, ez fikziozkoak, komikiak, olerkiak eta haur literaturako liburuak jaso dituzte. Irakurketa gida hori udaletxean zein Kultur Etxean egongo da eskuragai. Gainera, Mallabiko Bilduk eta EAJK adierazpen instituzional bat adostu dute emakumeen nazioarteko egunaren harira. Besteak beste, udalaren gobernu-ekintza orok generoaren ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea adostu dute.

Geltokia kendu behar badute autobusek berriro errepide erdian geratu beharko dute

Markesina dagoen lur zatia, inguruko enpresek adostasunean udalari utzitakoa da, beti ere, baldintza bigaz: inguruko lonjetarako sarrera bermatzea, eta etorkizunean, Izurtzako Jauregiaren atzealdean aurreikusitako etxebizitzak eraikitzean, geltokia harantza lekuz aldatzea.

**> DURANGALDEA ASTEON****Emakume beginek egindako lana berbagai**

Domeka honetan, martxoak 3, Maria Jose Arana teologo feminista Durangon izango da, *Emakume beginak: emakume askeak gizonen gizartean* hitzaldia ematen. Emakume kristau aktibista haien historia berba egingo du, 17:30ean hasita, Jesuitak ikastetxeko Arrupe Aretoan.

**Mugikorretarako mendiko GPS ikastaroak, Durangon**

Martxoan, Android mugikorretarako mendiko GPS ikastaro bi emango ditu Markina-Xemeingo Eitten elkarteak. Alpinoko lokalean, Oruxmaps aplikazioa zelan erabili, praktikan ipini eta mapak sortzen ikasiko dute. Martxoaren 8an eta 9an, eta 11tik 14ra izango dira ikastaroak. Izena emateko: 655 720 261.

**Renault-Daciaren Espainiako kontzesionario guztien artean Gaursa da onena**

Otsailaren 5ean Valladoliden egindako sari banaketan, Gaursak 2012ko *Dealer of the year* saria jaso zuen. Espainiako Renault-Dacia kontzesionario onenari ematen dioten saria da. Alex Rodriguez Gaursako zuzendariak Renaulteko presidente Carlos Ghosnen eskutik jaso zuen saria. Merkataritza jardueran, bezeroen arretan zein salmenta arloan izandako kudeaketa bikaina aintzatetsi diote sariagaz.

**> ABADIÑO****Erralde likidatzeko 95.000 euro emango ditu Abadiñoko Udalak**

Abadiñoko Udala da likidazio prozesuan ekarpenik handiena egingo duena



Ados agertu ziren udaleko hiru alderdiak udal gobernuaren proposamenagaz.

**> ITSASO ESTEBAN**

Udaleko hiru alderdiek aho batez erabaki dute Abadiñoko Udalak 95.000 euroko aportazioa egitea Erralde hiltegia likidatzeko.

Aulesti eta Ispasterreko alkateekin batera, Erralde sozietatea desegiteko batzordean kudeatzearekin lanetan dihardu Jose Luis Navarro alkateak, eta atzoko udalbatzarrean azaldu zenez, Erraldek abeltzainekin eta langileekin daukan zorra ordainduko dute ekarpen hauen bidez, sozietatea osatzen duten 15 udalek. Guztira, 400.000 euro arteko ekarpenak egin dituzte udalek. Martxoaren 4an entregatuko dute taloia notariotzan.

Abadiñoko Independentiek alderdiaren, Bilduren, eta EAJ-ren adostasunagaz onartu zuten atzo, 95.000 euro bideratzea Erraldek abeltzain eta langileenganako zorra kitatzera. Oraindik Abadiñoko Udalaren 2013ko aurrekontua onartu barik dagoenez, diru ekarpen hori egin ahal izateko kreditu aldake-

ta ere egitea onartu zuten, atzo, hiru alderdiek.

Aitor Azueta Bilduko bozerroaleak eta Eneko Etxebarria jeltzaleak ere, adosturikoa "irteerarik onena" dela esan zuten.

Erralde hiltegiaren sozietatearen likidazioari lotuta, hurrengo pausoen berri ere eman zuten Jose Luis Navarro alkateak, atzo: "Hiltegi berria Berriren egiteko lursaila erosteko, hitzartutako kredituari buruzko batzarra egingo dugu bankuekin ahal bezain laster".

**EKARPENAK HERRIKA**

- **Atxondo:** 27.000
- **Berriz:** 69.000
- **Elorrio:** 27.000
- **Garai:** 10.000
- **Izurtza:** 10.000
- **Mallabia:** 32.000
- **Mañaria:** 16.000
- **Otxandio:** 24.000

**> GARAI****Lantziegogaz senidetza sinatuko dute hilaren 16an****> M.O.**

Garai Udalak senidetza hitzarmena sinatuko du Lantziegokoagaz, martxoaren 16an. Garain izango da ospakizuna, eta sinaduraz gainera, beste hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Esaterako, bazkaria egingo du-

te frontoian. Dagoeneko, bazkaria joan gura duenak badauka apuntatzeko aukera udaletxean.

Goizeko 11:00etan ondoetorria egingo diete lantziegarrei. Ostean, Etxeitako artea bisitatuko dute. 13:30ean egingo dute senidetza sinatzeko ekitaldia. 15:00etan hasiko da bazkaria, eta gero, Gardokiren erromeriagaz jarraituko du jaiak.

Garai eta Lantziegoren arteko hartu-emana dantza taldeen eskutik hasi zen, duela 25 urte baino gehiago.

**> ATXONDO****Axpe eta Arrazolakoekin egun berean batuko dira**

Arrazolako auzo batzarra hilaren 16 eguerdira atzeratu dute; aurretik, Axpekoekin batuko dira

**> JOSEBA DERTEANO**

Arrazolako auzo batzarrek beste ekimen batzuekin bat egingen zuela-eta, astebete atzeratzea erabaki du Atxondoko Udalak. Beraz, azkenean, martxoaren 16ko zapatuan egingo dute,

12:00etan, ludotekan. Egun berean baina lehenago batzartuko dira Axpeko auzotarrekin ere: 09:00etan, sasoi bateko udaletxeko eraikinean.

Era berean, Apatako auzo batzarrek hilaren 21etik 23ra egin-

go dituzte, eskola berrian. Hilaren 21eko batzarrerara Irubide, Markoia, Jauregi eta Bentaberriko bizilagunak daude deituta, 18:30erako. Hurrengo egunean eta ordu berean, errepi-detik Ziarreta alderako bizilagunen txanda izango da. Azken batzarra hilaren 23ko zapatuan egingo dute, 10:00etan, errepi-detik goiko alderako bizilagunekin. Asteguneko batzarretara joan ezin dutenak ere hurre-ratu daitezke zapatuko batzar horretara.

**OSTEOPATIA IKASTAROA**  
**elorrion**

Osteopatia ikasi nahi?  
**ORAIN DUZU MOMENTUA!**

Astean zehar edo asteburuetan egiteko aukera


INFORMAZIO GEHIAGORAKO  
**670 582 764**

**momotxo**  
**t a b e r n a**

Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: **94 681 10 06**

# ➤ Berbaz

**SAIOA AGIRRE ETA ANDER ALBERDI** | Presoen gizarteratzeko Harrera Taldeko kideak |



## “Presoak irteten direnerako, gizarteratzeko babes osoa ematea gura dugu”

Hasierako euforiaren ostean, kalera irteten den presoak eguneroko bizimodu berriari aurre egin behar dio: tramite administratiboak, lana topatzea, ingurunera egokitzea... Gizarteratzeko laguntza modu informalean eman izan da; orain, Harrera Taldean egituratu dute

### >AMAIA UGALDE

Eskualdeka, sare bat osatzen dabilta Harrera Taldeak. Saioa Agirre eta Ander Alberdi preso ohiak Durangaldekoan dabilta, eta berorren berri eman dute. Taldea herri-tar guztiei zabalik dagoela jakin eragin dute.

Zer dela eta sortu da Harrera Taldea?

**Saioa Agirre:** Aspaldikoa da sorrera, baina ekainetik da legala. Egiten genuen irakurketa zen, preso bat kalera irteten denean, zailtasun pilo bat izaten dituela berriro egunerokotasunean sartzeko.

**Ander Alberdi:** Nik dakidala, beti egon da ardura hori. Hutsunea ikusten genuen; irteterakoan, ongietorria-eta, dena oso hunkigarria izaten da, baina handik hilabete batzuetara, beherakada dator. Konturatzen zara bakarrik zaudela, eta bakarrik hasi behar duzula aurrera egiten.

**S.A.:** Orain arte, laguntza hori modu informalean egin izan dute pertsona batzuek; preso bat kartzelatik irteterakoan, norta-

“

*Irteterakoan ongietorria-eta, dena oso hunkigarria izaten da, baina handik hilabeteetara beherakada dator”*

“

*Egoera konponbiderantz badoa, jende piloa etorriko da, eta ezin ditugu laguntza barik utzi”*

sun agiri berria egin behar da, gidatzeko baimena atera, Lanbidera joan, etxe bat topatu... Ikusizen, modu pertsonalean lagunduta bakarrik, ez zirela denera heltzen, eta laguntza eta elkartasun hori guztia antolatu eta koordinatu egin behar zela. Hasteko, 2007an diagnostiko bat egin zen Jaiki Hadi osasungintzako elkar-teagaz, zer premia zeuden ikusteko.

**Zeintzuk izaten dira premia nagusiak?**

**S. A.:** Denetik dago. Ez da gauza bera herri batera edo hiri batera bueltatzea, familia giro batera, edo familia bako girora, lan bat topatzea ere oso garrantzitsua izaten da... Bai ikusten zen, orokorrean zailtasunak egoten direla hartu-emanetarako, pertsona horrek ondorio psikologikoak, psikosomatikoak, sozialak, etab. izaten dituela.

**A. A.:** Egoera hori ikusita, Harrera Taldeen egitasmoa indartzen joan zen apurka-apurka. Iheslariak eta presoak bueltatzera-koan, babes osoa ematea gura dugu, eta sare indartsua egitea lortu gura dugu.

**Premien artean, zein da zuentzako garrantzitsuena?**

**S. A.:** Nik uste dut lana dela garrantzitsuena. Diru sarrerengatik, eta ez hori bakarrik, lanak nolabaiteko konfiantza bat ematen duelako ere bai.

**A. A.:** 30 urte kartzelan egon bazara, bat-batean zure gurasoen edo bikotekidearen menpe egoitea ez da batera xamurra.

**Zenbat denbora behar izaten da egoera berrira ohitzeko?**

**S.A.:** Pertsonen arabera da hori, zigorra zenbatekoa izan den... Adibidez, Gatza bezala 31 urte egon denak ez dakit zenbat denbora beharko duen. Inguruan zer daukazu ere garrantzitsua da, familia eta lagunak dituzun, ez dituzun... Errazago egingo zaitu batera edo bestera.

**Zelan dago egituratuta taldea?**

**S. A.:** Lehenengo eta behin, pertsonari babesa eman eta haren premiak ikusten dira. Talde administratibo-juridikoa dauka, lege kontuetan eta tramite administratiboetan laguntzeko. Beste talde bat dago formakuntza bideratzeko, eta ahal den hei-

nean, lana topatzeko. Psikologo batzuk ere badauzkagu, eta Jaiki Hadi elkar-teak osasun kontuetan laguntzen digu.

**A. A.:** Norbait laguntzeko prest badago, ondo-etorria izango da. Bazkide egiteko aukera ere badago, laguntza ekonomikoa ere behar izaten delako. Pertsona bat kalera irteten denean, 420 euroko subsidioa kobratzen du, eta horregaz ezin dira oinarritzko beharrak asetu. Gaixotasunagatik etxean baina pultserekin daudenak ere hor daude, eta horiek ez dute laguntzarik. Parot doktrina aplikatu dieten pertsonak oso nagusitan irtengo dira kalera, oso gutxi kotizatuta, eta arazo ekonomikoak izango dituzte...

**Lege arlotik Herrirak eskatzen dituen neurriak betez gero, preso ugari irtengo da kalera...**

**A.A.:** Lan handia egongo da. Horregatik, aurretik indartu behar dugu sarea, eta prest egon behar dugu. Laguntza eta babes ekonomikoa beharko dira. Hau konponbiderantz badoa, jende piloa etorriko da, eta ea zer egiten dugun 2.000 lagunekin. Argi daukat ezin ditugula utzi botata.



## &gt; BERTSOLARITZA



## “Publikoan bertsozaleak eta euskara ikasleak batu gura ditugu”

Durangoko Plateruenean, martxoaren 7an, 19:00etan batuko dira Bertso Korrika ekimen berezian

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Martxoaren 7an, Durango-ko Plateruenean egingo dute Bertso Korrika saioa. Ione Narbaiza, Ane Abanzabalegi eta Eneko Abasolo 'Abarkas' batu ditugu; Bizkaiko Bertsozale elkartearen, Durango-ko Abarrak euskaltegiaren eta bertso eskolaren ordezkari legez, hurrenez hurren. Hiru elkarte horiek antolatutakoa da martxoaren 7ko bertso saio berezi hau. Igor Elortza, Miren Amuriza, Unai Iturriaga eta Aitor Bizkarra ariko dira bertan kantuan.

Zelan sortu da ekitaldi hau antolatzeko elkarlana?

**Ione Narbaiza:** AEK eta Bertsozale elkarte elkarrekin lanean ari dira azken bi urteetan, eta lankidetzara horren emaitzeta ko bat da Bertso Korrika. Herri bertso eskolek ere parte hartu dute ekimenean, beraz, hiru zutabe dauzka elkarlanak.

Zer helburu dauzka ekimenak?

**Ane Abanzabalegi:** Korrika giroa, euskara ikasten ari direnek bertso saio bat entzutea, bertsolari gazteei kantatzeko aukera ematea, kalean euskaraz elkartzea herriko euskal hiztunak eta ikasten ari direnak, eta bertso eskolen eta euskaltegiaren arteko harremanak lantzea.

Zer berezitasun izango du Platerueneko saioak?

**Eneko Abasolo:** Euskara ikasle horietako askorentzako, bertso saio bat entzungo duten lehen aldia izango da eguenekoa, eta horregatik, saioa azalpenak eta bertsolari jarduna egokitu egingo dira. Gainera, saioan zer topatuko duten aurrez landuko dute euskaltegian, bertso eskolako gai-jartzailearekin batera. Bertsozaleak eta euskara ikasleek publikoan bat egitea gura dugu; elkarrekin berba egiteko zer hobe aurretik pintxo janean batzea baino?

Herriz herri antolatu dituzue honakoa bezalako bertso saioak?

**I.N.:** Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Lapurdin izango dira saioak. Denera, 25 bertso eskolak hartu dute euren herrian saioa antolatzeko ardurak; 100 bertsolari jardungo dute plazaz plaza, asko ibili direnak eta gutxiago aritzen direnak bat eginez saio berean. Bestalde, 20 gai-jartzaile arduratuko dira euskaltegian eskola didaktikoak emateaz eta bertso saioetan gaiak emateaz.

Joan zen astean bertso eskola egin zenuten Pinondoko euskaltegian. Zelan joan zen?

**A.A.:** Oso ondo joan zen, saioa oso dinamikoa izan zen, eta ikasleek bertso bat zer den ezagutze-

“

*Bertso eskolaren eta euskaltegiaren harremana lantzea da Platerueneko ekimen honen helburuetako bat”*

ko aukera izan zuten. Eskolan landu arren, ariketa desberdinak egin genituen, eta saioa bertso bat eginez amaitu genuen. Gure ikasleen lehen bertsoa izan zen hori! Horrez gainera, Platerueneko martxoaren 7ko saiorako gaiak eta hainbat ariketa pentsatu genituen bertso eskola horretan.

Zer giro sumatzen da euskaltegian Korrika hurreratu ahala? Urduritzen hasiak zarete?

**A.A.:** Korrika baino ez darabilgu egunotan ahotan! Ikasleekin Korrikaren inguruko ikasmateriala lantzen hasi gara: Korrika zer den, nondik nora izango den,

eta omenduak eurak izango direla azaldu diegu, esaterako.

Gai emailere bezala jardungo duzu egueneko Platerueneko saioan zuk, ezta, Eneko?

**E.A.:** Bai, eta euskara batuan egin eta gauzak ondo azaltzeko enkargua daukat (barrez). Aritua naiz euskaltegiaren bertsoan, eta saiatzen gara euskara ulergarria egiten. Berezia izango da, gaiak euskaltegi ikasleek prestatu dituztelako, batez ere: euren ikuspuntutik egingo da saioa. Asmoa daukagu publikotik kantatzeko, ohi baino saio informalagoa sortzeko.

**A.A.:** Ikasleei egokitutako saioa izango da. Bertso saioaren aurretik harremana sortu dadin, esan bezala, pintxo jana antolatu dugu.

**I.N.:** Platerueneko egueneko saioa guztiz irekia izango da, izan ere, helburua elkargune izatea da: ikasleak euskal hiztunekin elkartzeko gunea sortzea.

## Korrika ailegatu aurreko beste hitzordu batzuk, Durangaldean

Herrietako Korrika Batzordeak hainbat ekimen antolatzeko amaitzen dabilta, baina martxoaren 20an Korrika ailegatu orduko eskualdean giroa berotzeko antolaturiko hainbat proposamenen berri eman digute Durango-ko Abarrak euskaltegian.

Esaterako, Irati Jimenez gonbidatu dute Durango-ko Udal Liburutegira, martxoaren 7an hitzaldia eskaini de-

zan. Martxoaren 9an, berriz, Andra Mari-ko elizpean aurkeztuko dute Korrika, eta Irurretan, *Artilearekin lanean* izeneko tailerra egingo dute Berbalagunen eskutik.

Martxoaren 15ean eta 19an, bestalde, Korrika Txikiak egingo dituzte Elorrion eta Durangon, 15:00etan.

Martxoaren 20an, 12:00etan sartuko da Korrika Durangaldean. Durangon, euskararen

aldeko ekimenaren etorrerara giroa hainbat ekimen antolatu dituzte, eguerdian hasita, Andra Mari-ko inguruan.



## &gt; BERTSOLARITZA

# Abiatu dute Bertsolari Gazteen BBK sariketaren XXI. edizioa

Durango kantatuko dute martxoaren 12an, Durangaldekoek eta Arratiakoek



## &gt; ITSASO ESTEBAN

Zazpi talde lehiatuko dira aurten, BBKren Bertsolari Gazteen XXI. sariketan. Bizkaiko zazpi eskualdetako 50 bertsolari gazteek jardungo dute: Arratia, Bilbo, Busturialdea, Lea Artibai, Enkarterri, Ipar Uribe eta Durangaldeko

50 bertsolarik jardungo dute sariketan; 18 urtera artekoek batetik, eta 18 eta 24 urte bitartekoek, bestetik

bertsolari gazteek. Taldeko seina bertsolarik jardungo dute: hiru, 18 urtera artekoak, eta beste hiru, 18 eta 24 urte bitartekoak.

Asteon hasi da Bertsolari Gazteen XXI. BBK sariketa: Igorreko Lasarte aretoan jokatu dute saioa Arratiako eta Busturialde-

ko taldeek, eta Arratiakoak batu du puntuaziorik altuena.

Durangaldeko taldeak irabazi zuen iaz sariketa hau, eta horregatik, zuzenean sailkatu da aurreten, finalerdietarako.

Durango Institutuan izango da, martxoaren 12an, txapelketa honetako finalaurre bietako

luz Durangaldeko taldeak irabazi zuen sariketa, eta horregatik, zuzenean sailkatu da finalerdietarako

Martxoaren 22an, Bilboko kafe antzokian jokatu dute Bertsolari Txapelketa honen finala, 19:00etan hasita

bat, eta Durangaldeko eta Arratiako bertsolariek jardungo dute saio horretan.

Martxoaren 22an, Bilboko kafe antzokian jokatu dute finala, 19:00etan hasita.

Txapeldunak 1.260 euroko saria jasoko du; 900 eurokoa izango da bigarrena, eta 140 eurokoa bizkaiera onena erabiltzen duenarentzako saria.

## GEURE DURANGALDEA

ARANTZA ARRAZOLA  
ETA MAIDER LARRAÑAGA

San Agustin kulturgunea



## Hedabideak

Gure lanaren zati handi bat proposatutako ekitaldien berri ematean datza, horregatik ezinbestekoa dugu komunikabideekin harremana izatea. Sarri komentatu diogu elkarrizketan, zenbat eta hedabide handiagoa izan, orduan eta harrigarriagoa den haren jokamoldea, batzuetan aldekoa, etsigarria bestetan. Zer ote da batzuetan lurrikara komunikatiboa eragiten duena, eta, besteetan zokoratzea?

Los Guggenheim talde mexikarraren birak Bizkaiko hedabide nagusietan izan duen oihartzunak erabat harritu gaitu, herrietako antzokiak ikusezinak baikara halakoentzat, Bilbon egiten diren ekitaldi handiei bakarrik erreparatzen dietelako. Honezkeror mordoxka dira herrietako antzokiok elkarlanean adostuta antolatatu ditugun birak, baina sekula ez dugu oraingoan bezalako harrera eta jarraipenik izan, zergatik ote?

Akaso konpainia eta antze-lanaren izena izan dira deigarriak, *Más pequeño que el Guggenheim* hitz etan irudi joko erraza eragiten dutelako; halako deiturarekin, Bilbon ez antzeztea izan daiteke beste bat, Arriaga da antzoki publiko bakarra, eskaintza ona duena, baina lan handiak hartzeko prestatuko; areto ertainak Euskaldunan eta Campos Eliseos-en daude, eta takilaren truke alokatzaren direlako gelditu dira biratik at.

Kontua da, antzokion artean ere ez dugula asmatzen zergatik izan ote den, kontua da oraingoan hartu gaituztela hedabideek, kontua da herrietako aretoak bete zaizkigula, eta kontuak kontu, oraingoan istorio pozgarri bat kontatu dizuegula.

## &gt; ARTEA

## Ismael Iglesiasen 'Paisaia trifasikoa'

Joan zen astetik, Arkitektoen Elkargoko Bilboko egoitzan daude Iglesias durangarraren lanak



Hilabetez, martxoaren 21era arte egongo da Bilbon ikusgai, Ismael Iglesias artista durangarraren *Paisaia trifasikoa* erakusketa.

Asteleheneetik barikura dago erakusketa zabalik, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo ofizialeko Bizkaiko ordezkartzan.

Etxepare Institutuak artisten egoitzaldietarako eskaintzen duen beka jaso ostean, hilabete bi eman zituen Iglesiasen iaz Txinan, Pekinen. Herrialde hartan muntatu zuen *Yellow Tide* izeneko erakusketa.

Geometria eta espresionismoa uztartuz jarduten du Ismael Iglesiasen. Berbaz azaldu barik, nahiago du bere koadroak jendearen interpretaziora zabalik utzi: Bilboko erakusketa honetan utzi du bere *Paisaia trifasikoa*.



katerin ardoak  
iñaki uribe

**saltsan**

Eguneko eta asteburuetako menuak - Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

**URANGA AUTOAK**

BOSCH Service

www.urangaautoak.com

Goitondo poligonoa P1  
MALLABIA (Trabakua-Ermua errep.)  
Tel.: 943 17 97 17

**Pneumatikoak Denetarik marka eta prezioak**

ELURRETAKO PNEUMATIKOAK 205/55R 16 91V		
KUMHO KW23	89,99 € (unet.)	
HANKOOK W442	110,25 € (unet.)	
VREDESTEIN SNOWTRAC 3	124,10 € (unet.)	
MICHELIN ALPIN A4	136,73 € (unet.)	

**Olio eta filtro aldaketan PREZIO ITXIAK**

MARKA ETA MODELOA	ERREBISIO MOTA	PREZIOA
FORD FOCUS 98 1.6 100CV (98-04)	100.000 km-tara	120,00 €
AUDI A4 2.0 TDI 143CV (08-12)	30.000 km-tara	130,00 €
TOYOTA LAND CRUISER 3.0 D-4D 204CV (02-09)	105.000 km-tara	150,00 €
RENAULT SCENIC II 1.9 DCI 120CV (03-09)	140.000 km-tara	150,00 €
CITROEN BERLINGO 2.0 HDI 90CV (03-09)	180.000 km-tara	180,00 €
OPEL ZAFIRA 2.0 DTI 100CV (99-05)	120.000 km-tara	200,00 €
...		

**AURREKONTUAK DOAN!** eskatu zurea

## &gt; ZINEMA

# Victor Iriartek lehenengo lan luzea aurkeztu du: 'Invisible'

Punto de Vista jaialdian aurkeztu du Victor Iriarte durangarrak film luzea



## &gt; ITSASO ESTEBAN

Iruñeko Punto de Vista zinema jaialdian aurkeztu zuen joan zen astean Victor Iriarte durangarrak *Invisible* lana: lehenengo aldiz erakutsi du lan hori Euskal Herrian. Orain zortzi hilabete Marseillan estreinatuta zuten, eta Argentina eta Txilen ere eman dute. "Lana Iruñean estreinatzea oso garrantzitsua zen niretzat", dio Iriartek: "Hemengo naiz, eta nire lehenengo lan luzea ere baden Mursegoren erretratu hau, hemen, lagunartean erakustea oso betegarria eta hunkigarria izan da".

Bilbon, Madrilan eta Bartzelonan erakutsiko du filma datozen asteetan: filmeko protagonistaren, Maite Arroitauregi *Mursegoren* musikariaren, kontzertu batez osatuko dute emanaldia. Durangaldean ere emango dute laster, *Invisible*.

**Lehenengo pertsona**

Victor Iriarte zinegilearen lehenengo film luzea da *Invisible*. Lan oso pertsonala da: "Pelikula hau Maiteren eta nire bizitzari

buruzkoa da". Urteetan elkarlanean jardun dute Arroitauregi eibartarrak eta Iriartek: "Bere kanten letrak bion artean egin izan ditugu, nire filmetako musika Maitek egin izan du".

Sortzaile bien arteko maitasun istorioa kontatzen du filmak, eta Victor Iriarte zuzendariaren ahotsa da istorioa narratzen duena —oroitzapenak kontatzen dituenak.

Forma aldetik, ez da pelikula konbentzionala: esperimental da, egilearen berbetan. Berezia da formari eta egiturari dagokionez, eta hiru atal batzen ditu: batean, estudioan agertzen da Maite Arroitauregi; beste atal bat banpiroei buruzko film bat da; eta hirugarrenean zinegilearen eta musikariaren arteko harremana kontatzen da.

Dokumental musikala baino zerbait gehiago da, *Invisible*: "Hemen erretratua ez da bakarrik musikariarena, nirea ere bada, eta autoerretratu bat barritik egin behar da", azaldu du Iriartek.

Donostiako Tabakaleran zinema programatzaile moduan dihardu Iriartek, zinema esperimentalaren inguruan lanean. Aurretik, zinema irakaslea izan da Montevideon (Uruguai). Han eta hemen lan egin arren, Durangon mantentzen du Iriartek estudioa: bertan dauka materiala.

## Kulturzaileen Tick klubaren deskontuak gure aretoetan

Durangoko hiru kulturgunetan —Zugaza zinemaren, Plateruena kafe antzokian eta San Agustinen— eta Zornotzako zinemaren erabili ahal izango dira, aurrerantzean, Tick Kulturzaileen Klubaren txartelak.

Zinema areto horietan, kartelerako film guztietarako %60ko deskontua edukiko dute Tick txartela erakusten dutenek, eta Durangoko Zugaza zinemako opera, kontzertu eta ballet egitaraua 16 euroan barik, 11n izango dute.

Zinemaren, kartelerako film guztietarako %60ko deskontua daukate Tick Klubeko kideek

Bestalde, Tick Kulturzaileen Klubak Durangoko San Agustín kulturgunearekin lotutako akordioari esker, %25eko deskontua izango dute Klubeko kideek, biharko *Sueño de una noche de verano* ikuskizunerako; eta Topaklown jaialdiko ikuskizunetarako txartel bi baten prezioan lortu ahal izango dituzte, gainera.

Tick txartel mota bi daude: oinarrizko txartela gura izanez gero, urtean 32 euro ordaindu beha dira; eta horrez gain, hilabete bi eskaintzen berri ematen duen aldizkaria jasotzea nahi bada, 52 euro.

## Mursegoren 'Bi' diskoaren grabazioko irudiekin

Maite Arroitauregi 'Mursego'-ren estudioko irudiek osatzen dute 'Invisible' filmaren parte bat


Maite Arroitauregi *Mursegoren* rekin sartu zen Victor Iriarte zinegilea, *Bi* diskoaren grabazioan. Iriarte zuzendariak azaldu duenez, estudioan grabaturiko irudi horiekin "Arroitauregiaren alderik basatierna" erakutsi nahi izan du *Invisible* filmean. Mursegoren ahotsa oso presente dago, baina berbarik ez du egiten ia: kantuan agertzen du filmak.

Musikariaren sorkuntza prozesua erakusten du Victor Iriarteren lehenengo film luzeak: *loop* teknikaren bitartez, zelan

doan batzen eta uztartzen banan-banan grabaturiko doinuak.

Ez da lehenengo aldiz Iriarte durangarrak musika talde batez lan egiten duena; Miztura eta Lisabo taldeekin ere jardun izan du. "Lisaborekin birako kontzertuetara joan eta Super 8 kamera batekin irudiak hartu nituen", gogoratu du.

'Cajaconcosadentro' izeneko ekoiztetxea ipini zuen Victor Iriartek martxan. Bere sorkuntza lana ezagutu gura duenak, Kimuaken katalogoan eta Interneten ikusgai dauka lagin bat.



**hitz**  
liburudenda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 2 22:30ean  
**CAPSULA eta JOSEBA B. LENOIR.** Kontzertua. 10-12 euro.

MARTXOAK 3 17:00etan  
**IRRIEN LAGUNEKIN KANTA ETA DANTZA.** 5 euro.


MARTXOAK 7 20:00etan  
**BERTSO KORRIKA**  
M.Amuriza, U.Iturriaga, I.Elorza, A.Bizkarra.  
19:00etan pintxoak. 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**EL SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO**  
Ballet Carmen Roche  
Martxoak 2 • 20:00

**ALARDE DE DANZAS**  
Día de Andalucía con: Herri Maito Akordeoi Taldea, Tronperri Dantza Taldea, Grupo de Baile del Centro Andaluz de Durango. Organiza: Centro Andaluz  
Martxoak 3 • 12:00

San Agustín  
KULTUR  
GUNE  
DURANGOKO UDA



# Egin harpidedun eta esan... **ONGI ETORRI!**



## Harpidedun egiteko 3 aukera dituzu:

**1** [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera idatzi.

**2** 94 681 65 58 telefonora deitu.

**3** Kupoia bete eta bidali Anbotora:  
Bixente Kapanaga 9  
48215 - IURRETA



Izena ..... Abizenak .....

Telefonoa ..... E-posta .....

Helbidea ..... Herria .....

# Zu zara **anboto!**



# M8! Emakumearen Nazioarteko Eguna



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

Arreta Psikologikoa  
eta Juridikoa  
emakumeentzat

tel.: 94 620 04 92

**MONTSE SARRIUGARTE** | Durangarra |

## “Hau da mezua: ausartu zaitez sentitzen duzun hori egitera”

‘Un tranvía llamado Deseo’ antzezlanak gaurkotasuna duela deritzo Montse Sarriugartek

**JOSEBA DERTEANO**

Tennessee Williams dramaturgo amerikarrak ‘Un tranvía llamado Deseo’ izeneko antzezlan ezaguna estreinatu zuen 1947an. Blanche DuBois protagonistaren bidez, aurreiritziak, zorientasunaren bilaketa eta berori lortzeko gizartearen ezarritako oztopo ikusezin, baina errealak lantzen ditu antzezlanak. Sarriugartek antzezlaneko une bat hartu, gaur egunera ekarri eta gogoeta bat proposatuko du martxoaren 7an, 18:00etan, Pinondo etxeko atikoan eskainiko duen antzezlanean.

**Bakarrizketa bat izango da?**

Ez, antzezlan bat da. Bakarrizketa batek informazioa kontatu egiten du. Nik Williamsen antzezlaneko zati bat hartu dut, eta Blanche unen horretan sentitzen duena adierazten saiatuko naiz. Galdera honi erantzuten ahalegindu naiz: “Zelan lortuko dut Blanche momentu txiki horretan pentsatzen eta sentitzen duena ikusleari helaraztea?”. Antzezlan originalaren lagin txiki bat baino ez da, baina horren bidez istorio oso bat kontatzen dut. Istorio bizia da.

**Zelakoa izango da eszenaraztea?**

Antzezlanak hamabost minutu

inguru irauten du, eta hainbat osagai ditu. Ikusleak, sartu eta eseri bezain laster, bideo lan bat aurkituko du martxan. Bertan, lau lagun ageri dira, Blanche buruz iritziak ematen. Ondoren, Blanche sartuko da eszenan. Une batean, Ibon Quintanoren koadro bat ere agertuko da. Koadro horretan, pertsona bat ageri da leiho bati begira. Irudi horrek iradoki egiten du. Edonoren ilusioen isla izan daiteke. Koadroaren esanguragaz istorio bat sortuko dut, barbarik barik,

“

*Ohiz kanpoko zerbait egiten duzunean arraroa zara, zorotzat hartzen zaituzte”*

gorputzeko mugimenduekin bakarrik. Beraz, antzezlan laburra da, baina osagai asko ditu. Bide batez, eskerrak eman gura dizkiet muntaian modu batera edo bestera lagundu didatenei: Eider Sarriugarte, Zalao Pujana, Zalao Bernal, Ibon Pujana, Axel Pujana, Jesus Angel Garcia eta Roberto Lopezi. Argiztapena San Agustin guneak utzi digu.



**Zergatik aukeratu duzu pertsonaia hori?**

Blanche betidanik interesatu izan zaidan pertsonaia da. Alkoholiko eta zoro moduan ikusten du jendeak, baina nik ez dut horrela ikusten. Berak argi du zein den bere bizimodua, bere egoera, baina zorotzat hartzen dutenez... Anibalentzia hori agertzen da. Gizarteak formatu jakin bati jarraitzen dio, gida-lerro batzuk ditu ezarritakoak. Formatu horretatik irteten dena zorotzat nago.

**Gaur egunera ekarri daitekeen ideia da.**

Bai, hein handian, horregatik aukeratu dut. Ohiko gauzetatik kanporako zerbait egiten duzunean, arraroa zara. Pertsona ezaguna bazara, jokabide arraroak normalizatu egiten dira, baina ez bazara ezaguna, zorotzat hartu zaitzaten arriskua

duzu. Blanche gertatu zitzaiona gaur egunera ekarri daiteke. Bere benetako barne sentimenduak atera gura ditu, baina beti ezkutuan.

**Zer egin daiteke horren aurrean?**

Hauze da zabaldu gura dudana mezua: ausartu zaitez zeuk barruan duzuna egitera edo esatera. Maite dezatela egin duzuna, baina zeuk egin duzulako. Baztertu beldurrak, eta eman bidea ilusioa egiten dizun horri, horrek eroango zaituelako zorientasunera. Egin ezazu sinisten duzun hori sentitzen duzun era, sinistu zeure buruarengana. Mundu osoari zuzendutako mezua da. Beste mezua bat ere bada: beste egiten uztea da denon askatasuna.

**Antzezlanaren ostean ikusleentzako iritziak batuko dituzu.**

Nik ez dut antzezlanaren egun ba-

tean prestatu, lan baten ondorioa da eta, gero, nire emozioen bidez transmititzen diot publikoari. Ikusle bakoitzak bere izatearen iragazki pertsonaletik pasatuta jasotzen du mezua, eta sentimendu propioak eragiten dizkio. Jendeak sentitu duenaren berri jakitea oso aberasgarria da autorearentzat.

**Zure bizitzan beti izan duzu inguruan eszentokia.**

Modu batera edo bestera, betidanik izan dut lotura eszenatikiaz. Santanderreko eskola izan zen talde batean sartu nintzen aurrenekoa. Hamar urte eman nituen Santanderren, eta ondoren beste hamar Madrilen. Orain, Durangora etorri naiz. Pertsona batzuek, lehenengo kasu egiten diegu emozioei eta ondoren, pentsatu egiten dugu. Horregatik gustatzen zaitzantzerkia. Dena sentimendua da, sentitzera bideratuta dago.



## Musika, hitzaldi eta aldarrikapenek osatuko dute Durangoko egitaraua

Hilaren 12ko hitzaldian, krisia eta emakumea izango ditu hizpide Alicia Garcia

**> J.D.**

Durangon egitarau sendoa antolatuko dute Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Martxoaren 12an, 18:00etan, gaurkotasun bete duen hitzaldia eskainiko du Alicia Garcia Pinondo etxean: *Crisis del estado de bienestar: otra vuelta de tuerca para las mujeres*. Ongizate-estatuaren krisiak emakumeari zelan eragin dion eta egoera horren aurrean zer egin daitekeen argitzen saiatuko da

Garcia. Gizarte ekintza arloak antolatuko du hitzaldi hori. Sarriugarte doakoa da.

Urtero legez, aldarrikapenek ere izango dute bere garrantzia.

Berdintasunaren aldeko Lilakrosa ibilbidea hilaren 10ean izango da, 12:30ean, Ezkurdi Plazan hasita

Plataforma Feministak antolatuta, martxoaren 8an, 20:15ean, manifestazioa abiatuko da Santa Ana plazatik. Horrez gainera, berdintasunaren aldeko Lilakrosa ibilbideak zortzigarren aldia egingo du aurten; hilaren 10ean izango da, 12:30ean, Ezkurdi Plazan hasita.

Musikari dagokionez, hilaren 8an, 21:30ean, *Mujeres de armas tomar* kabaretarekin etorririko da Toñi Masedo Plateruenera.

**Martxoak 1-21**

ERAKUSKETA:

**"EMAKUMEEN UNIBERTSOAK"**

Nerea Andrés, Higinia Garay, Andragunean.

Aurkezpena: Martxoak 1

18:30 Artistekin Andragunean

**Martxoak 7****ANDRAGUNEAREN 4. URTEURRENA**

18:00 MONOLOGOA

**"Un tranvía llamado Deseo"**

Montse Sarriugarte

19:00 Emakumeen topaketa.

20:00 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kontzentrazioa.

Andra Mari portikoan.

**Antolatzaileak:** Berdintasunerako Udal Kontseilua (ekitaldi hauek doan izango dira)**Martxoak 8****EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA  
20:15 MANIFESTAZIOA**

Irteera Santa Ana plazan.

Durangoko Orfeoiaren emakumeak, Batukada, etab.

**Antolatzaileak:** Plataforma Feminista

21:00 JAIA Plateruenean.

21:30 KONTZERTUA

**"Mujeres de armas tomar"**

Toñi Masedo / Plateruenean.

22:30 DJ-ak: Jawata eta Begoña (ekitaldi hauek doan izango dira)

**Martxoak 10**

11:30 Kamisetak banatzea.

Animazio globoekin.

12:30 LILAKROSA, Berdintasunaren aldeko VIII. Ibilaldia Ezkurdi Plazan.

19:00 ANTZERKIA: "PURGA"

Vaivén Producciones &amp; Ilmatar Teatro.

San Agustín Kultur Gunean.

**Martxoak 12**

18:00 HITZALDIA:

"Crisis del estado de bienestar: otra vuelta de tuerca para las mujeres". Alicia García.

**Antolatzaileak:** Gizarte Ekintza arloa.

Pinondo Etxean (sarrera doan)

**Martxoak 11 - 15  
ERAKUSKETA GIDATUA  
IKASTETXEETARAKO**

"Emakumeak zientzian"

San Agustín Kultur Gunean

2013 MARTXOAK 8  
DURANGOEMAKUMEEN  
NAZIOARTEKO EGUNAALIKERA  
BERDINTASUNA  
IGUALDAD DE  
OPORTUNIDADES  
DURANGO  
Ukela • AyuntamientoSan Agustín  
KULTUR  
GUNEA  
URRUGO-UKELACENTRO  
CULTURAL  
San Agustín  
URRUGO-UKELA

AINTZANE GUTIERREZ | Berdintasun teknikaria |

## “Berdintasun faltsu baten sentsazioa dago, eta ezin gara erlaxatu”

‘Emakumea lehen eta orain’ tertulian parekidetasunean emandako pausoez eta egin beharrekoek hausnartuko dute

### > AMAIA UGALDE

Frankismoko ‘Emazte onaren gida’ hartatik gaurdaino hamaikataxoko gauza aldatu dira, baina ez da komeni lasaitzea. Aintzane Gutierrez berdintasun teknikariak tertulia bat gidatuko du Zaldibarren, martitzenean, 18:30ean, orain arteko aldaketak ikusi eta etorkizunera begirakoei buruz hausnartzeko.

### Zelan bideratuko duzu martitzeneko tertulia?

Datuak emango ditut, eta etortzen direnekin batera, lehengo eta oraingo egoera aztertuko dugu. Duela urte batzuk, goitik zetorren emakumea zelakoa izan behar zen. Hor daude frankismo-ko *Emazte onaren gida* eta horrelakoak. Orain ez da hain agerikoa, leku askotatik esaten digute zelakoak izan behar garen; gauzak aldatu egin dira, baina ez hainbeste. Etxeko lanetan eta zaintzan, adibidez, oraindino emakumeok dugu pisu gehien. Txikitatik, apurka-apurka bideratu gaituzte horretara.

### Gauzak aldatu egin direla pentsatzeko eta lasaitzeko arriskua ikusten duzu?

Bai, erlaxazio arriskua dago. Horregatik, garrantzitsua da mobilizazioa, emakumeek egiten duten lana ikusaraztea... Badago sentsazio bat berdintasun faltsu batena, berdintasun legal bat. Aurrerapausoak egin dira, baina ez dira nahikoak.

### Berdintasun faltsua diozu. Non ipini beharko genuke arreta?

Denean. Etxeko lanena eta zaintzarena oso garrantzitsua dela uste dut. Emakumeenganako indarkeria ere hor dago, baina hori, azkenean, honen guztia- ren ondorioa da, atzetik beste dena dago. Hizkuntzan bertan, desberdintasun asko daude; adjektibo batzuk ez dira berdinak gizon eta emakumeentzako. Historia ikasten dugunean ere, ematen du emakumeek ez dutela ezer egin historian, eta hori gezurra da, eta ez dena aipatzen, ez da existitzen.

### ‘Emakumeak lehen eta orain’ da mahainguruaren izenburua. Eta bihar? Zelan ikusten dituzu gazteak?

Nire ustez, gazte askok pentsatzen du berdintasuna lortuta dagoela. Lan handia egin behar da eurekin, estereotipoak oso sartuta dituztelako. Askoz hobeto da eraikuntza estereotipo barik egitea txikitatik, ikasitakoa deseraikitzea baino. Mezu asko jasotzen dituzte gurasoengandik, kaletik, telebistatik... Ingurukoa imitatzeke joera daukagu, eta gure ingurunea sexista da. Jostailuetatik hasita, neskei erakusten zaie sukaldean ibiltzen eta besteak zaintzen, eta mutilei ausartak eta gogorrak izaten. Martitzeneko ondorioa positiboa izatea gurako nuke; erne jarraitu behar dugu. Borrokan jarraitu behar dugu, emakumeak ikusarazten, eta euren lana baloratzen. Bide luzea geratzen da oraindik.



## Helmuga elkarteak eta emakumeen lana ikusarazteko premia

Zaldibarko Helmuga emakume elkarteak Bilborako irteera eta urtean zehar egindako eskulanean erakusketa antolatu ditu datorren asterako. 2005ean sortu zen Helmuga, eta Gutierrezen ustez, “lan handia egiten dute emakumeen lana ikusarazteko”. Pasa diren Sanandresetan txupinazioa dela eta egindako proposamena ipini du adibide: Txupinazioa botatzeko gizonak eta emakumeak tartekatzea proposatu zuen Helmugak.

Mari Jose Garcia elkartearen presidentearen berbetan, “Zaldibarren emakumeen kolektibo asko daudela ikusten

dugu, eta herrian parte hartzea sustatu gura dugu”. Gaur egun, 70 bazkide ditu Helmugak, eta bereziki emakumeentzako ekintzak antolatzeaz gainera, gizonak ere gonbidatzen dituzte, eta erantzuna “oso ona” izaten dela azaldu du Garciak.

### Ekintzen egutegia

Martxoaren 8ko ekintzez gainera, udaberrirako egitaraua antolatzen dabilta Helmugako kideak. Arantzazura joango dira, hango artzainen lana ezagutzera, eta postre eta plater begetarianoak egiteko ikastaroak prestatuko dituzte.

**martxoak 5, martitzena 18:30 - MAHAINGURUA**

EMAKUMEA, LEHEN ETA ORAIN, Aintzane Gutierrez Liburutegi zaharrean. Hartzaindegi zerbitzua doan.

**martxoak 6, eguaztena 08:30 - BILBORA IRTEERA**

Bilboko Udala, Itsas Museoa eta Zubi esekia ikustera. Irteera udaletxeko plazan. Izen-ematea: 688 613 410 (Helmuga elkarteak).

**martxoak 7, eguena 19:00 - IPUIN KONTALARIA HELDUENTZAT**

EMAKUME BASATIA, Maider Galartza (euskaraz) Liburutegi zaharrean. Hartzaindegi zerbitzua doan.

**martxoak 8, barikua 21:30 - AFARIA ETA DANTZALDIA**

Goierriko auzo-etxean. Autobusa doan 21:15ean udaletxe aurrean. Txartelak martxoaren 5era arte salgai. 20 euro. (Karobi, Negu Gogor eta Olga).

**martxoak 9 eta 10, ERAKUSKETA**

HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA Liburutegi zaharrean. Zapatua (11:00-13:00/17:00-19:00) Domeka (11:00-13:00)

\* Hartzaindegi zerbitzua nahi izanez gero, udalean izena eman martxoaren 4a baino lehen





# Berdintasunaren aldarria eskutik eskura, Aiñeketan

Laugarren urtez antolatu dute Berrizen, martxoaren 8ari loturiko Aiñeketan ekimena

## > ITSASO ESTEBAN

Adin guztietako herritarrak batuko ditu, zapatuan, martxoaren 8ko egitarauaren barruan, Berrizen antolatu duten Aiñeketan ekimenak. Martxoaren 9an, goizeko 12:00etan hasiko dute martxa herrikoia.

Berrizburun elkartu, eta Urtiaga plazara arteko bidea elkarrekin korrika egingo dute parte-hartzaileek, "emakumeen eskubideak eta berdintasuna aldarrikatzeko".

Duela lau urte antolatu zuten Aiñeketan lehenengoz, eta urterik urte gero eta zabal eta anitzagoa da parte-hartzaileen kopurua; ume, gazte zein helduek egiten dute bat ekimengaz. Aldarrikapena eta kirola uztartzen ditu, eta berriztarraren artean gero eta harrera hobea du.

Aurreko edizioetan bezala, udaleko Berdintasun sailak hainbat eragileren babesagaz antolatu du Aiñeketan. Emakumeen eskubideen eta berdintasunaren aldarrikapena sinbolizatzen duen ikurra testigu bezala eskurik esku pasatuko dute ekimena bultzatzen duten elkarteetako kideek.

Korrikaldiaren ostean, Olatueta plazan elkartuko dira

Udaleko Berdintasun sailak Berrizko hainbat eragileguz antolatu du martxoaren 9ko lasterketa berezia

parte-hartzaile guztiak, ekimenaren laugarren edizioari amaiera emateko.

Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko, kontzentrazioan batuko dira berriztarrak martxoaren 8an: Urtiaga plazan elkartuko dira, 19:00etan.



## Feminitateei buruzko gogoetak: Behibi's taldearen 'No es fácil'

Martxoaren 8an, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean eskainiko dute 'No es fácil' antzezlan

## > ITSASO ESTEBAN

Antzezle bakarria agertzen da oholtzan Behibi's taldearen *No es fácil* antzezlanean: Patricia Franco da obraren antzezlea. Espe Lopezen testuan eta zuzendaritzan oinarrituriko lana da *No es fácil*. Martxoaren 8an, 19:30ean izango da, Kultur Etxean ikusgai.

Bere buruari hainbat galdera egiten dizkio Patricia protagonistak antzezlan honetan, eta ikuslea beste horren-

beste egitera gonbidatzen du. Besteak beste, "hau da emakume izatea?", "bikotea ala bakardadea?", "nola liteke ni bezalako emakume inteligente eta interesantea bakarrik egotea?", etab. Ordubeteko emaldia da, Donostiako Behibi's taldeak Berrizko kultur etxean eskainiko duena.

Bestalde, *Pink Saris* dokumentala izango da, martxoaren 20an, 20:00etan, Berrizko kultur etxean ikusgai.



# MARTXOAK 8

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

---

**MARTXOAK 8 - 12:00etan, EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDEKO KALEJIRA!** Berrizko Institututik Learreta Markina eskola aurreko plazara. Antolatzailea: Berrizko Institutua.  
Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Institutuko frontoian

**19:00etan, KONTZENTRAZIOA,** Urtiaga plazan.

**19:30ean, "NO ES FÁCIL" ANTZEZLANA.** Berrizko kultur etxean. Sarrera: 5 euro.


---

**MARTXOAK 9 - 12:00etan, "IV. AÑEKETAN",** martxa herrikoia Izen ematea martxoak 7ra arte. Berrizko udaletxean, kiroldegian edo berdintasuna@berriz.org helbidean.


---

**MARTXOAK 20 - 20:00etan, "PINK SARIS"** Emakumeen eskubideen inguruko dokumentala. Jatorrizko hizkuntzan eta azpitoluak euskaraz. 16 urtetik gorakoentzat gomendatua. Doan. Berrizko kultur etxean.



---



**berrizko**  
UDALA



Berrizko udala  
Berdintasun Zerbitzua  
94 682 40 36  
berdintasuna@berriz.org  
[www.berriz.org](http://www.berriz.org)

# Kolonbian bizitako esperientziari buruzko erakusketa eta berbaldia

Mari Carmen Abasolok Kolonbian emakumeak formatzen jardun du

## > JONE GUENETXEA

Kolonbiako Pereira Las Brisasera joan zen, iazko ekainean, Mari Carmen Abasolo iurretarra. Bidaia bat egin gura zuen, eta modu horretan, kasualitatez, moja pasionisten zentro batera joateko aukera sortu zitzaion, hiru hilabeterako. EHUko irakasle baten bitartez, haiekin harremanetan jarri zen. Buelta gehiago eman barrik, etxean bere asmoa azaldu zuen, eta hilabete batzuetarako

bidaia ekin zion. Kolonbiara heldu zen, eta lanik ez zitzaon falta izan. "Zer egiten dakidan galdetu zidaten eta punta, gantxilloa, eta halakoak egiten nekizkiela erantzun nien. Emakumeak formatzeko tailerrak zituzten bertan. Beraz, emakumei tailerrak ematen hasi nintzen". Eskulanak eta gimnasia eskolak ere eman zituen. Jantokia ere bazuten zentroan, eta han ere, sukaldean laguntzaile jardun zuen.

Abasolok egindako bidaia argazkitan ezagutzeko aukera izango da martxoaren 4tik 12ra bitartean Ibarretxe kultur etxean. *Emakumeen ekintzak emakumeentzako: formazioaren garrantzia* izenburupean, bidaia horretako irudiak batu dituzte erakusketan.

Abasolok egindako bidaia argazkitan ezagutzeko aukera izango da

Martxoaren 5ean, berriz, Mari Carmen Abasolok eta Miren Arantza Barrenetxeak berbaldi batean azalduko dute esperientzia hori. "Oso esperientzia ona izan da. Bertan lanean dabiltzanekin eta gainerako jendearekin ere oso ondo konpondu naiz".



## Martxoaren 8an, adierazpen instituzionala eta bideo forumaren proiektioa, Ibarretxen

Martxoaren 8an, emakumearen nazioarteko egunaren harira, adierazpen instituzionala irakurriko dute Ibarretxe kultur etxean, 18:30ean. Otsailaren 27ko ohiko udalbatzarrean onartu da adierazpenaren testua.

Berori irakurri ondoren, 19:00etan, Frozen River filmagaz bideoforuma proiektatuko dute. Horren ostean, filmaren inguruko berriktaldia izango da, eta Marina Santakoloma ibiliko da moderatzaile.

**Emakumeentzako afaria**  
Martxoaren 8a dela-eta, emakumeentzako afaria antolatu dute Goiuriko Ikuspegi jatetxean, martxoaren 9rako. Autobusa Bidebarrietako geltokian irtengo da, 20:45ean.

## Emakumeen abangoardia berbagai, Kultur Etxeko literatur tailerretan

Emakumeek literaturan izan duten garrantzia aztertzen dihardute

### > ITSASO ESTEBAN

Ibarretxe kultur etxeko literatur tailerretan *Espaniako emakumeen abangoardia: Madrid-Bilbo 1900-1936* gaia landu-

ko dute martxoaren 4ko saioan. Urte osoko tailerra izan arren, egun horretan interesa duen beste edozeini eskainiko diote parte hartzeko aukera.

### Tailer arrakastatsuek

Ekimen hori Eskolastika literatur zerbitzuak dinamizatzen du. Ana Arizketa da Iurretako taldearen arduraduna. Hamabostean behin elkartzen da hamasei laguneko talde hori. Munduko emakumeen literatura eta mestizaia lako gaiak landu izan dituzte, orain arte. Ikasturte honetan, Clara Campoamor edo Rosalia de Castroren lanak aztertu dituzte, besteak beste, bai eta haiek mugitzen ziren gizartearen testuingurua ere. Ziortza kultur etxeko teknikariak dioenez, literatura tailerrek oso harrera ona dute: "Iurretatik kanpoko jendea ere etortzen da".



## MARTXOAK 8

### IURRETA - 2013

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**MARTXOAK 2** (Zapatua) ⌚ 10:00-14:00 / 15:30-19:30 Ibarretxe kultur etxean  
EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA IKASTAROA  
Izena aurretik eman behar da.

---

**MARTXOAK 4-12** Ibarretxe kultur etxean  
ARGAZKI ERAKUSKETA  
"ACTIVIDADES DESDE LA MUJER PARA LA MUJER: IMPORTANCIA DE LA FORMACIÓN"

---

**MARTXOAK 4** (Astelehena) ⌚ 18:15  
Ibarretxe kultur etxean  
EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRA  
"LA VANGUARDIA FEMENINA ESPAÑOLA: MADRID-BILBAO 1900-1936". Izena aurretik eman behar da.

---

**MARTXOAK 5** (Martitzena) ⌚ 19:00 Ibarretxe kultur etxean  
HITZALDIA "ACTIVIDADES DESDE LA MUJER PARA LA MUJER: IMPORTANCIA DE LA FORMACIÓN". Hitzariak: M<sup>o</sup> Carmen Abasolo - Miren Arantza Barrenetxea

---

**MARTXOAK 8** (barikua) Ibarretxe kultur etxean  
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA  
⌚ 18:30 ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA  
⌚ 19:00 BIDEOFORUMA: "FROZEN RIVER"

---

**MARTXOAK 9** (Zapatua) Ikuspegi jatetxean (Golaria)  
EMAKUMEENTZAKO AFARIA  
⌚ 21:30 AFARIA ⌚ 20:45 AUTOBUSA "BIDEBARRIETA"KO GELTOKIAN  
Izena aurretik eman behar da.

Argibide gehiago: 94 620 03 42 telefonoan

# “Freno gabeko” bizikleta martxa Durangaldean

‘Frenorik ez sistema patriarkal kapitalista transformatzeko!’ izango da aldarria

## > JONE GUENETXEA

Durangaldeko Txoko Feministak eta Durangoko Bilgune Feministak egun osoko egitaraua antolatu dute martxoaren 9ra. *Frenorik ez sistema patriarkal kapitalista transformatzeko!* lelopean, bizikleta martxa-rekin ekingo diote egitarauari.

Zaldibarren izango da irteera, 10:30ean. Berriz, Atxondo, Elorrio, Abadiño eta lurreta zeharkatuko dituzte

Zaldibarren izango da irteera, 10:30ean. Berriz, Atxondo, Elorrio, Abadiño eta lurreta zeharkatu eta gero, eguerdirako Durangon ezarriko duten helmugara heltzea aurreikusitako antolatzaileek. Bizikleta hartu eta ekimen honetan parte hartzeko gonbita luzatu diete Du-

rangaldeko herritar guztiei antolatzaileek.

13:30ean elkartuko dira, Andra Marian. Performancea eta luntxa egingo dituzte bertan.

## Gauean gaztetxera

Gauerako jaia Durangoko Sapuetxe Gaztetxean antolatu dute antolatzaileek. DJ Txaystown (New York), Luzy (La Habana) eta Subfurzia (Mendiola) izango dira festa girotuko dutenak.

## Txoko Feminista

Txoko Feministaren sarea Durangaldean zabaltzen dabil. Batzarrak Durangon eta Elorrioren egiten dituzte. Taldeko kideek azaldu dutenez, emakumeen topagune bat sortzeko gogoak bultzatuta sortu da taldea: “Emakumeona izango zen espazio bat sortzeko beharra eta gogoia sentitu genuen. Espazio bat sortu eta borrokatze-



ko. Alde batetik, elkarrengandik ikasten eta elkarrekin formatzen ahalegintzen gara. Eta bestetik, komunean ditugun aldarrikapenak kalera ateratzen ere saiatzen gara”. Ekimen batzuk Durangoko Bilgune Feministarekin batera lantzen dituzte. Txoko feminista espazio seguru bat bezala ulertzen dute: “Identitate kolektibo femi-

Gauerako jaia Durangoko Sapuetxe gaztetxean antolatu dute antolatzaileek

nista baterako espazioa, identitate hori etengabe eraiki, berretsi eta indartuz”. Barrura begirako lana eta kanpora begirako elkarrekin joan beharreko zerbait direla uste dute Toxko Feministako kideek. “Beraz, aldarrikapenak norbanakotik kalera ateratzeko zubi bat bezalakoa ere bada Txoko Feminista”.

# MARTXOAK 8

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

### Martxoak 7 - 17:00 / 17:20

IPIIN KONTALARIA: “EMAKUMEZKOAK=KONTATZEN”, Ana Rodriguez - Apika Teatroa. 17:00etan 3-5 urte bitarteko umeentzat, 17:20an 6-9 urte bitartekoentzat. Elorrioko Liburutegian.

### Martxoak 8 - 22:00

ANTZEZLANA: “LOCAS”, Nudo Teatroa. Arriolan.



### Martxoaren 4tik 26ra

ARGAZKI ERAKUSKETA: “24 IRUDI GIZARTE BERRI BATERAKO, BERDINTASUNA ETA MASKULINITATE BERRIAK”. Iturriko erakusketa aretoan.

### Martxoak 14 19:30

DOKUMENTALA: “LLAMAME KUCHU, si nos seguimos escondiendo, dirán que no estamos aquí”. Film dokumental onenaren saria Zinegoak 2013. Iturrin.



### Martxoak 21 19:30

HITZALDIA: “GIZONAK ETA BERDINTASUNA”. Iturriko areto nagusian.

### Apirilak 29 18:00

HITZALDIA: “CRÍTICA DEL PENSAMIENTO AMOROSO”, M<sup>a</sup> Luz Esteban (Antropologoa eta feminista), Iturrin



**Elorrioko udala**

**RAFA PEREZ** | Piper Txuriak elkarteko kidea | 54 urte, Elorrio

## “Berdintasunaren oinarriak guztiongan daude”

Maskulinitate berrien ikuspuntutik, berdintasunaren alde lanean dabil Rafa Perez



**Deustuko Emakume Zerbitzuak eta Piper Txuriak elkarteak erata, argazki erakusketa egongo da Elorrian, bihurtik martxoaren 26ra bitartean. Bilbon jaito baina Elorrian bizi den Rafa Perez da antolatzaileetako bat. 30 urte daroaz zerbitzu horretan lan egiten, eta elkartean duela hiru urte hasi zen militatzen. Berdintasunaren bidean, maskulinitate berri bat lantzea dute helburu. Berbaldia ere eskainiko dute martxoaren 21ean, erakusketaren osagarri.**

**Zer aurkituko dute zuen erakusketara doazenek?**

25 panel dira, berdintasunagaz lotutako argazkiekin. Jabekuntza, ardura banaketa, emakumeen kontrako indarkeria... Ho-

rrelako zenbait ikuspegi islatzen saiatu gara. Bestalde, gure helburu orokorrak azaltzeko panelak ere egongo dira. Maskulinitate berriak, berdintasunaren aldeko borroka ulertzeko molde berriak... Beti ere, gizonen ikuspuntutik, baina mugimendu feministekin konfrontazioan ipini barik. Eremu honetan gu baino askoz lehenagotik lanean dabilizan kideentzako laguntza edo babes moduan ulertzen dugu. Gure helburu nagusia da gizonengana heltzea eta horiek berdintasunaren inguruko gaiez hausnartzea.

**Zer ekarpen egin dezake gizonak berdintasunaren alde?** Desberdintasun horretan protagonista handienak garen hei-

“*Gizonok espreski inplikatu behar dugu zerbait aldatzea gura badugu*”

“*Estimua, sentimenduak... Horiek, galtzen gabiltzan ezaugarriak dira*”

nean, guztia eman ahal dugu. Hainbat pribilegio ezarri ziren aspaldi, eta gaur egun estrukturalki onartuta daude jendartean. Berdintasunaren oinarriak guztiongan daude, ez bakarrik emakumeengan. Gizonok espreski inplikatu behar dugu zerbait aldatzea gura badugu. Orain arte aldatutako apurra emakumeen bultzadagatik aldatu da; batez ere, berdintasunak denontzako etekina dakarrela ulertarazi digutelako gizonoi.

**Askok uste du berdintasunaren emakumeen borroka dela.** Guztiok gaude gustura aldekoa zaigun estatus batean. Baina konturatu behar dugu, jendarte justuago bat denontzako dela hobe.

**Idea horren ondorio izango da mugimendu horietako militantzia handia ez izatea...**

Nik dakidala, Bizkaian badaude gizonen taldeak. Esate baterako, Ermuan, Santurtzin, Getxon... Ez dira oso talde iraunkorak, ekintza militante guztien moduan. Baina horrek argi islatzen du jende asko dagoela arduratuta justizia sozialagatik edota gizarte honetako beste arlo batzuegatik. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna gizarteko oinarritzko zutabeetako bat izateagaz arduratuta daude, eta borroka horretan daude. Edozelan ere, kontu handia eduki behar dugu. Izan ere, gizonok merezi ez dugun mugimendu baten protagonista bihurtu gaitzke, oso berandu heldu gara eta berdintasunaren borroka. Protagonismo horretatik ihes egitea garrantzitsua dela uste dut.

**Zer esan gura duzu ‘maskulinitate berriak’ terminoagaz?**

Gizartearen egituraketa berri baten alde dauden gizonen inguruan berba egiten dugu termino hori erabiltzean. Gizonari tradizioz erantsi zaizkion zenbait balio indargabetzea da: agresibotasuna, lehiakortasuna, irabaziak... Horren ordez, emakumeek sarriago adierazten dituzten elementu batzuk adierazteko gai izan gura dugu: estimuak, sentimenduak... Galtzen gabiltzan ezaugarriak dira horiek, matxismoaren erreibindikazioan mantentzen saiatzeagatik eta gizarte patriarkalak ezarri digun rola jokatzegatik.

**Zergatik murgildu zinen mugimendu horretan?**

Urte askoan nabil beharrean Deustuko Emakume Zerbitzuan, justuak ez diren egoerak pairatu dituzten eta kasu askotan tratatu txarren biktimak izan diren emakumeak jasotzen. Uste dut horregatik daukadala sentsibiltate handiagoa berdintasunagaz eta maskulinitate berriekin.



## 244 lanpostu arriskuan, Iketz-San Eloy ez itxi Eusko Jaurlaritza mugitu!

### 244 lanpostu arriskuan, Iketz-San Eloy ez itxi

San Eloy Taldea, Fundiciones San Eloy eta Mecanizados Iketz enpresek osatzen dute. San Eloy Elorrión dago, eta Iketz Abadiñon. Guztira, 244 langilek egiten dute lan bertan.

2012ko ekainean, bazkideek enpresa biak finantza egoera oso larrian zeudenaren zurrumurrua zabaldu zuten, eta harrezkero, hartutako gestio erabakien ondorioz egoerak nabarmen okerrera besterik ez zuen egin. 2012ko irailaren 19an, enpresa bientzako konkurtso-prozedura eskatu zuten arren.

Ordutik gaur arte egindako gestioa ere tamalgarria izan da; inbertitzaile posible batek berak nahi zituen astakeria guztiak egin ditu eta, taldeak zituen bezeroengandik berak nahi zituen prezioak lortu ez dituenen, alde egin du, horrela enpresa interesatzen ez zaiolako. Larriena da, ordea, bere gestioaren ondorioz, bezero onenetako bat galtzeko arriskuan dagoela San Eloy Taldea. Egoera honetan Volkswagen-ek ez duela jarraituko jakinarazi baitio enpresaren zuzendaritzari.

Bien bitartean bazkideak desagertuta daude, urteetan sortutako aberastasuna poltsikoratu eta, orain, duten erantzukizuna ez dute bere gain hartu. Beraiek sortutako miseriak langileek irenstea gura dute, eta 244 familia kale gorrian gelditzeak ez diela batere axola demostratu dute.

### Eusko Jaurlaritza mugitu!

Eusko Jaurlaritza ere, egoera honen erantzule zuzena da. Azken urteetan, enpresaren gestio txarra txalotu eta

2010ean San Eloyri 1.300.000 euro eta Iketzi 600.000 euro eman zizkien, diru horren erabilpenaren inongo kontrolik gabe. Hori nahikoa ez eta 2011ko abenduan Fundiciones San Eloyri beste 1.500.000 euro eman eta, gainera, Jaurlaritzak enpresaren akzioen %18 eskuratu zuen. Hau da, Jaurlaritza San Eloyko bazkidea da.

Gainera, jakin izan dugunagatik, azken hilabeteetan egoera okertu duen inbertitzaile horrek, proiektuarekin aurrera egiteko 6.000.000 euro eskatu zizkion, eta Jaurlaritzak 3.000.000 euro ematea onartu zuen.

Horregatik Jaurlaritzari zera eskatzen diogu:

1. Egoeraz kezkatu eta dagozkion gestioak egin ditzala hornitzaileek San Eloy Taldean euren konfiantza mantendu dezaten. Batez ere, Volkswagen-ekin dagozkion gestioak egin ditzala, bere eskaerak enpresa horretan mantendu ditzan.

2. Planteamendu serio bat eta abal bat onartu ditzala, enpresaren biziraupenerako beharrezkoa den segurtasuna emango dutena.

3. Diru horren erabilpenari dagokion jarraipena egin diezaiotela, bai San Eloy taldean, bai beste enpresa guztietan. Diru publikoa lanpostuak salbatzeko bai, baina gutxi batzuk aberasteko erabil ez dadin.

Bide batez, Durangaldeko LAB sindikatuak eta Iketz eta San Eloyko LAB kide guztiok bereziki, herritar guztiei dei egiten diegu martxoaren 9rako Bilbon antolatu den manifestazioan parte har dezaten, enplegua defenda dezagun! Iketz eta San Eloy ez itxi!

**LAB Durangaldea**

### SEI HANKAKO MAHAIA

**JUANJO GASTAÑAZATORRE**

PP



### Zentroa ezindu psikikoentzat

Durangok ezindu psikikoentzako eguneko zentro bat izango du las-ter. Eta zentro berri hori errealitate bihurtuko da, Durangoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako hitzarmen bati esker.

Durangoko Alderdi Popularraren ustez, berri ona da hori. Izan ere, agintariek eta administrazioek esku hartzeko funtsezko arlo bat izango badute, hori gizarte-ekintzako politikak dira.

Aldundiak eta gurea lako udalerriek sinatzen dituzten hitzarmen arautu horiei esker, herritarren oinarriko beharrezko erantzun ahal izango diegu, haiek gizarteratzerako programak eta ekintzak eskainita.


Kasu honetan, zentroak minusbaliotasun psikikoa dutenen gizarteratzea erraztu eta ahalbidetuko du. Hitzarmenaren arabera, Udalak lokal bat laga behar du doan, eta Aldundiak eskainiko du zerbitzua bera, haren kudeaketarako esleipen publikoa eginda.

Aurrekontu publikoko dirua gizarte-ekintzako politiketan gastatzea berebizikoa da, azpiegituren, garraibideen, kulturaren eta bestelako sailtan gastatzea baino areago. Eta nahitaezkoa ere bada, bereziki, baliabideak behar bezala erabili eta inor jokoz kanpo eta aukerarik gabe utzi nahi ez dituen gizarte batean. Hala bada, gizarte-ekintzaren gastua gakoa da administrazio publikoaren ikuspegitik.

Langabetuei edo baliabiderik gabekoei prestazio ekonomikoak emateaz ari gara, baita kolektibo ahulenei laguntza eskaintzeaz ere, hala nola nagusiei edo ezinduei.

Alderdi Popularrean pozik gaude, instituzioen artean elkarlanean dabiltzalako gizarte arloko horrelako ekintzak gauzatze-ko. Eta pozik gaude, halaber, Errotarixuenako higiezina, 525 metro karratukoa, desgaituentzako zentro bihurtuko dutelako. Berri ona da hori.

*\* Erredakzioan itzulita*



### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215  
[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)

- Izen-abizenak • telefonoa
- helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)

2013ko martxoaren 1a  
11. urtea - 491. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor Lopez.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.



# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA



## AROTZERIA



## ITURGINTZA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guzietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

**EGUIA S.L.**  
**AROTZERIA**

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
**Mug.: 669 655 169**  
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Soleguren kalea 3 - AMADIÑO  
Tel.: 94 601 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga.n@sierra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



## GARBIKETAK



## ELEKTRIZITATEA ARGITAZPENA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietza, 46 - 2.esk - Elorrio - 615 79 12 15

ARGITATZE TEKNIKAK  
**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**Ubide**  
iturgintza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



## LORAZAINTZA

*Jardines Patxi Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



Profesional onenak zure zerbitzura!

**> AUTOKROSA**

Arkaitz Uranga Citroen Saxoaren barruan, Mallabiko Goitondo industriagunean duen tailerrean.

## “Autokroseko irteerako hiru segundoak rallyko minutu asko baino hobekak dira”

Arkaitz Uranga pilotuak Espainiako Autokros Txapelketari ekingo dio hurrengo asteburuan

**> JOSEBA DERTEANO**

Arkaitz Uranga (29 urteko markinarra; Mallabian du auto tailerra) Espainiako Autokros Txapelketa irabazi zuen iaz, 1.600 zentimetro kubikoko Citroen Saxo batez. Aurten maila bat gorago lehiatuko da, eta irabaztea du helburu.

**Aurten goragoko zilindrada bat probatu gura duzu.**

Bai. Aurten 2.000 zentimetro kubikoko kategorian parte hartu gura dut, 1.600eko motorragaz. Hau da, autoak zilindrada txikiagoa du, baina baita besteek baino pisu txikiagoa ere. Iaz, zilindra honetan, autoak 880 kilo izan behar zituen gutxienez, baina aurten, antza, 940an ezarri gura dute minimoa. Horrek esan gura du, autoari 110 kilo gehitu beharko nizkiola. Oraindik ez dute aurtengo legedia argitaratu, eta gutun bat bidali dut Espainiako Federaziora gehiezkoko pisua 900 kilo inguruan mantentzeko eskatuz.

**Probatu duzu autoa pisua gehituta?**

Bai. Asteburuan Alcañizko (Teruel) zirkuituko lasterketa lehiatu nuen, bigarren mailan. Pisua gehituta eta gasolina depositua topera, 110 kilo pisutsuagoa zen autoa. Apur bat justu ibili ginen. Iaz baino indartsuagoa dela iku-

si genuen, baina aldi berean, baita ez dugula erreztasun handirik edukiko ere. Iaz zirkuitu berean baino segundo eta erdi astiroago ibili gara aurten.

**Autoa iazko berdina da?**

Iaz legez, Citroen Saxo bat dut, baina auto berria da. Iazko autoko gauza onei eutsi diegu, eta hobetu ahal zen tokietan hobetu dugu: motorrean eta esekiduran, esaterako. Esekidurarako, Dani Solá pilotu kataluniarragaz ipini ginen hartu-emanetan, eta ondoren, Raiger esekidura holandarrak erosi genituen, gaur eguneko onenetakoak. Aurtengo motorrak iazkoak baino 20 zaldi gehiago ditu, gainera.

**Federazioak 940 kiloei eusten badie, zer egingo duzu?**

Beharbada, berriro bigarren mailan arituko naiz, iaz legez. Ez dudana nahi da, irteeretan atzean geratzea, edo talde handien erdian ibiltzea. Autoa apurtzeko bidea da hori, argi dago.

**Bigarren mailan aritzen bazara, Iban Posado izango duzu txapelketa irabazteko arerioetako bat. Iaz ez zenuen ondo amaitu beragaz.**

Nik beragaz ez dut inolako arazorik. Hartu-eman ona dugu. Bere inguruko jendea zen kezkatzen gintuena. Faltsuak ziren. Posado berari ere esan nion.

**Azkenengo lasterketan, gasolina depositua giltzarrapo batez itxi zenuen, badaezpada.**

Zezer egiteko intentzioa zutela-edo zer edo zer heldu zen gure belarrira. Egia esanda, nik ez dut uste horretara helduko zirenik, baina, badaezpada, giltzarrapoa ipinita lasaiago lo egin genuen.

**Aurten, zenbat lasterketak osatzen dute txapelketa?**

Krisiaren ondorioz, lasterketa batzuk kili-kolo egon dira, baina entzun dudanez, azkenean iazko seiei eutsiko diete. Katalunian eta Galizian bina, eta, Aragoian eta Gaztela-Leonen bana.

**Maila batean zein bestean, zeintzuk izango dira helburuak?**

Helburua irabaztea da, hori argi daukat. Pisu minimoa 900 ki-

lo inguruan ipintzen badute, aurrean ibiliko gara. Horrez gainera, beste sailkapen bat ere badago turismoetan. Lasterketa bakoitzean kategoria denetako

“

*Aurten 2.000 zentimetro kubikoko kategorian parte hartu gura dut 1.600eko motorragaz”*

“

*Irabaztea dut helburu; iazko txapelketa izanda, atzerapausoetan ezin dugu pentsatu”*

finaletako denborak hartuta sailkapen bat osatzen da, eta horren arabera puntuak banatzen dira. Sailkapen hori irabaztea ere badut helburu.

**Anbizio handiko helburuak dira.** Iaz txapelketa irabazita, atzerapausoetan ezin dugu pentsatu. Gainera, teoriarik, aurtengo autoa iazkoa baino hobea da, nahiz eta joan zen asteburuko proban atzerakada apur bat egin genuen...

**Probaketa da non hobetu jakiteko modurik onena.**

Horixe da. Autoari berunezko xaflak gehitu gura dizkiogu azpiko aldean. Asteon berunagaz-eta lan egiten duen Plentziako lagun bat etorri zaigu, xafla horrek non eta zelan banandu begiratzeko. Garrantzitsua da autoa ondo orekatuta egotea.

**Orain urte batzuk, Euskal Herriko autokros txapelketa irabazi eta errepidera salto egin zenuen. Zergatik?**

Sasoi hartan, bazen Citroen Kopa bat euskal-nafar zirkuituan. Beti gustatu izan zaizkit piketxoak sortzen diren txapelketak, hau da, autoen artean parekotasuna daukatenak. 2008an, Citroen Kopa irabazi genuen, eta 2009an, Bizkaiko Rally Txapelketa. Euskal Herrikoa ere irabazi genuen gure kategorian.

**Eta, hala ere, autokrosera itzuli zinen.**

Euskal Herriko autokros txapelketa 17 edo 18 urtegar irabazi nuen. Sasoi hartan, Espainia mailan gure maila zein zen jakin gura nuen. Lleidara joateko asmoa eduki nuen, baina gurasoek zirkuitua ikusi zuten, eta azkarregia zela esan zidaten. Harrezkero, beti izan dut jakinmin hori. Errepideak apur bat nekatu ere egin gintuen. Hainbat faktorek bat egin zuten autokrosera bueltatzeko.

**Gidatzerako orduan, errepideak eta autokrosak ez dute batere zerikusirik.**

Lur gainekoa askoz politagoa izaten da. Gidatzeko modua delikatuagoa da baina. Sarritan, lurra busti egiten dute, hautsik ez irteteko, eta gidarien eskuek eta trebeziak garrantzi handia hartzen dute. Irteerak ere bereziak izaten dira: hamar-hamabost auto, bata bestearen ondoan, azele-ragailua zapaltzen, motor hotsa, semaforoa noiz itzaliko zain... Bizpahiru segundo horiek rallyko minutu asko baino hobekak dira. Beste alde batetik, autokrosaren kasuan, egunean bertan joan zaitezke lasterketara. Asistentziari dagokionez ere, rallyen mundua askoz estresanteagoa da.

&gt; JUDO

# Lehia eta balioak uztartuko ditu judoka gazteen topaleku erraldoiak

Durango Uria IV. Nazioarteko Judo Txapelketak 530 judoka gazte batuko ditu bihar, Landako kiroldegian; aldi hau inoizkorik nazioartekoena izango da, Frantzia eta Portugaldik gaztetxo asko etorriko dira-eta



Durango Judo Taldeak Durangoko Udalaren laguntzagaz antolatuta du judo txapelketa. Asier Arroita

&gt; JOSEBA DERTEANO

Aurten, laugarren aldia egingo du Durango Judo taldeak antolatzen duen Durango Uria Nazioarteko Txapelketak. Landako kiroldegiak 530 judoka gazte hartuko ditu bihar, inoiz baino gehiago. Judoka horien jatorriak ere argi uzten du urterik urtera gero eta garrantzi handiago hartzen ari den txapelketa dela. Esaterako, Frantziatik (Bordele, Medoc...) 100 gaztetxo etorriko dira, eta Portugaldik (Alges) beste 30. Aurten, Andorrako 10 judokak ere parte hartuko dute.

Kimu, haur eta kadete mailatan lehiatuko dira gaztetxoak. Aurtengo edizioan, kendu egin

“Gaztetxoek judoan jarraitu dezaten motibatzea nahi dugu horrelako txapelketa eta topaketen bidez”

dute benjaminen maila. Diotenez, eskola kirolean badago adin tarte horri zuzendutako programa berezitua. Kimu mailatik aurrera, oster, “judoan ez dago teknifikaziorako ibilbide orririk”, Iñaki Salas Durango Judo Taldeko kidearen esanetan: “Horregatik, gure ahalegin guztiak kimu, haur eta kadete maila-

letara bideratu ditugu. Judoan jarraitu dezaten motibatzea nahi dugu horrelako txapelketa eta topaketen bidez”. Horrekin batera, errespetua, bizikidetzatza, diziplina... lako balioak sustatu gura dituzte, judo norgehiagok kirol bat dela ahaztu gabe: “Nazioarteko judoka asko etorriko direnez Durangora, oso hitzordu erakargarria da judo maila hobetu gura duen edozein gaztetxorentzat”.

Urtero-urtero, ekitaldiko kamiseta bana jasotzen dute parte-hartzaileek. Aurten, nobedade moduan, ohiko kolore beltzeko kamisetaren ordean, kalitate handiagoko zuri bat diseinatu dute: “Diseinua asko zaintzen ahale-

gintzen gara. Gainera, aurtengo kamiseta teknikoak izango da. Horrek esan gura du, edozein txapelketatan erabiltzeko baliagarria dela”.

## DATUAK

**NON:** Landako kiroldegian.

**NOIZ:** Zapatuan, 10:00etatik 19:00etara

**MAILAK:** Kimu, haur eta kadete kategoriak

**KOPURUA:** 530 judoka

**JATORRIA:** Portugal, Frantzia, Andorra, Euskal Herria, Katalunia, Kantabria, Gaztela-Leon, Errioxa, Madril, Valentzia, Murtzia eta Asturias

&gt; SOKATIRA

## Lau domina eta mendeku txiki bategaz itzuli dira Herbehereetatik

&gt; J.D.

Herbehereetako TTV Lagerweij taldeak 25 urte bete dituela-eta, horren harira antolatutako txapelketan parte hartu zuen Abadiño sokatira taldeak joan zen asteburuan. Italia, Irlanda, Eslozia eta Suitzako taldeak batu

ziren, besteak beste. Abadiño hiru urre irabazi zituen 560, 600 eta 640 kilotan. Azken maila bietan Irlandako taldea menderatu zuten. Horrela, mendeku txiki bat hartu zuten. Izan ere, Irlandako talde horrek iazko Munduko Txapelketan 560ko finala irabazi zion Abadiñori.

Hiru urrez gainera, zilar bat ere lortu zuen Abadiño 300 kilora artekoan. Gainerako pisu bietan (680 eta 340an) laugarren eta bosgarren tokian amaitu zuen txapelketa.

&gt; FUTBOLA

## Abadiño-Zaldia, igotzeko hautagaien arteko derbia

Lehen erregionaleko igoera postuetan daude biak; Zaldia dago lider, lau puntuko abantailagaz

&gt; J.D.

Astola futbol zelaiak lehenengo erregionaleko bi talde onenen arteko derbia hartuko du zapatuan. Zaldia mailako liderra da, eta lau puntuko alde ateratzen dio igoera postuan dagoen

Abadiñori. Beraz, gertatzen dena gertatzen dela, Zaldibarko taldea lider irtengo da Astolatik. Abadiño, oster, bigarren postua galdu dezake hiru puntuak batzen ez baditu. Berriatukok Abadiño adina puntu

ADITUAREN TXOKOA



**Oihana Azkorbebeitia**

Mendi lasterketak

### Beste denboraldi bat

Hamar urte dira jada mendi lasterketen munduan sartu nintzela. Ikaragarri aldatu da kirol hau hamar urteotan.

Mendi lasterketetan hasi nintzenez, ez ziren batez ere ezagunak, eta banaka batzuk baino ez ziren antolatzen Euskal Herrian. Korrikalari gutxi hartzen genuen parte, “zoro” koadrilla batek, zelanbait esateko.

Gaztetan atletismoan ibili nintzen. Sei urtetxo izango nituen nire lehen krosa korritu nuenean, eta hamazortzi urte bete arte aritu nintzen. Baina, batez ere mendia izan dut beti buruan, txikitatik gehiago. Makina bat txango eta mendi-buelta egin nuen neskatoan gurasoekin, ia asteburu. Eta gogoeta haxe egin nuen geroago: “Zergatik ez korrika eta mendia uztartu”? Hori-bera pentsatu zuen Eneko nire koinatuak, eta berak animatuta hasi nintzen.

Nire estreinaldia Azkoitiko mendi maratoni erdia izan zen. Hogei bat izango ginen irteeran. Neskak, hiru bakarrik. Ikusleak ere gutxi, familia artekoak eta lagunak, batez ere. Baina oroitzapen eder-eder-er-er daukat: mendian gora eta behera, arineketan ahal zenean eta oinez hauspoa betetzen zenean. Harrezkero, urtero ekin diot bide horri, mendia beste era batera gozatuz. Harritzekoa da kirol honek urteotan izan duen bilakaera. Orduko zapatillak eta gaurkoak, arropa, entrenatzeko era... Kontuak kontu, bertan dugu 2013ko denboraldia, eta aurrera!

ditu, eta Ugao puntu bi atzetik dago.

Aretofutbolak Durangaldeko taldeen arteko beste derbi bi ere utziko ditu asteburuan. Euskal ligan, Abadiño Lagun eta Kuruziaga neurtuko dira. Lehenengoek, goiko postuetara hurreratu gura dute, eta bigarrenek, zulutik irteteko behar dituzte puntuak. Azkenik, lehen erregionalean, Sapuberri eta Dantzari lehiatuko dira. Talde biak dabilta igotzeko borrokan.



## &gt; DUATLOIA

# Trena lurperatuta, Durango bistaratuko du martxoaren 9ko duatloiak

Trenak zekartzan oztopoak gaindituta, arineketan egiteko tartea Durangoko kaleetan zehar egingo dute



Mugarra triatlói taldeko Gurutze Frades, Beñat Lopez eta Iñigo Lariz duatloiko aurkezpenean.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Mugarra triatlói taldeak martxoaren 9rako antolatuko duen zazpigarren duatloiak nobedade nagusi bi ditu aurten, biak ibilbideari lotuak. Batetik, trena lurperatzen zenerako aginduta zutena betez, arineketan egiteko tartea Durangoko kaleetan zehar egingo dute. Dagoeneko ez dute Orozkertara arte joan beharrik. Bestetik, bizikletaz osatu beharreko 40 kilo-

metroetan, Miota igo beharrean, Kanpazar igoko dute.

Duatloia distantzia laburrekoa da (10 kilometro arineketan, 40 bizikletan eta beste 5 arineketan). Emakumeen lasterketa 12:00etan hasiko da Ezkurdin, eta gizona ordu laurden geroago. Honako hau da arineketan egin beharreko ibilbide berria: Ezkurditik Landako etorbidean sartu eta Ciclos Iturriaga dendaraino zuzen

joango dira duatletak; handik bigorria hartu, eta atletismo pistatik bueltan-bueltan, Muruetorre eta Mikeldirantz zuzenduko dira. Ondoren, Frai Juan Zumarraga eta Alluitz kaleak zeharkatu, eta Askatasun etorbideetik sartuko dira Ezkurdin. Ibilbide "erakargarria" dela adierazi zuen Gurutze Frades duatletak aurkezpenean, eta Durangoko kaleetatik igaroko denez, herritarrei

dei egin zien "duatletei animatzen irteteko". Bizikletako ibilbidea aldatzeko arrazoiak Beñat Lopez Mugarrako lehendakariak eman zituen: "Miotarako bidean, biribildune asko egin dituzte. Euria egiten badu, arriskutsua izan daiteke, eta gainera, kontrolatzeko jende gehiago behar da".

Iazko legez, Durangon erabakiko dira distantzia laburreko Euskadiko txapeldunak. Emakumeetan, Mugarra taldeko Gurutze Frades iurretarra iazko txapela berritzen ahaleginduko da. Gizonetan, berriz, Zornotza Extreme taldeko Iurgi Etxandia sasoi beatean dabil.

## &gt; Gaztetxoek duatloia

Nagusien aurretik, gaztetxoek duatloia egingo dute laugarren biderrez. 11:30etik 12:30era arte infantil, kimu eta benjamin mailako gaztetxoak lehiatuko dira, nor bere distantzian. Horien ostean, bederatzirteko beherakoei ere eskainiko diete duatloia txiki bat egiteko aukera. Izena egunean bertan eman daiteke, edota posta elektronikoz, honako helbide honetara idatzita: [mugaratriatloloieskola@gmail.com](mailto:mugaratriatloloieskola@gmail.com).

Bestalde, Mugarra aurreratu duenez, apirilaren 21ean lasterketa herrikoi bat egingo dute lehenengoz. Distantzia bi izango ditu lasterketa horrek: hamar eta bost kilometrokoa, eta duatloirako diseinatu duten ibilbide bera errepikatuko dute.

## &gt; BIZIKLETA

## Mendi bizikleta martxa egingo dute Elorrioren

Elorrioko Txirrindulari Elkarteak 18, 25 eta 32 kilometroko ibilbideak prestatu ditu domekarako

Elorrioko Txirrindulari Elkarteak mendi bizikleta martxa bat antolatu du domekarako. Aurten 14. aldia egiten du martxak, eta 10:00etan hasiko da plazan.

Zailtasunaren arabera hiru ibilbide prestatu dituzte. Besaidaraino, denak elkarrekin joango dira. Han, ibilbide laburra aukeratzen dutenek (18 kilometro eta 500 metroko desnibel positiboa) Memaia igoko dute, handik berriro Elorriora jaisteko. Ibilbide ertaina egitea erabakitzen dutenek (25 kilometro eta 750 metroko desnibela) Besaideko iturritik Udalako herrira joango dira. Handik, bidezidor batzuk hartuz, Kanpazarreko harrobi zaharretik zein berritik gora, Kanpazar gaine-

ra helduko dira, bide zaharretik berriro Elorriora jaisteko. Ibilbiderik gogorrenagaz ausartzen direnek (32 km eta 1.100 metroko desnibela) Kanpazarretik Besaidarako bidea hartuko dute, Udalaiz azpitik doana. Memaia igo eta Elorrioren helmugaratuko dira.

## &gt; Izen-ematea egun berean

Izena egunean bertan eman daiteke, lasterketa hasi baino ordu bete lehenagotik hasita. Federatuek euro bi ordaindu beharko dituzte, eta federatu gabekoei hamabost. Amaieran, dutzak eta bizikleta garbitzeko gunea atonduko dituzte. Jan-edana banatuko dute mendi martxako parte-hartzaile guztien artean.

## &gt; RALLYA

## Tarsiciok podiuma du helburu Gabirian

Etzi, Euskal Herriko Rallysprint Txapelketa hasiko du Iban Tarsciok, Gabirian

Domekan, Euskal Herriko Rallysprint Txapelketa hasiko da Gabirian. Bertan, 51 gidarik parte hartuko dute, eta horietako bost Durangaldeko taldeetan dabilta. Durangalde Rancing elkarteko Iban Tarscio gidariak eta Iñigo Peña koploutuak podiuma dute helburu prestaziorik handieneko mailan (6 kategorian), Mitsubishi EVO IX bategaz. Gabirian zein gainerako bederatzirteko lasterketan Joxe Labaka (Mitsubishi EVO V), David Ardions (Mitsubishi EVO VII), eta Jon Davoz (Mitsubishi EVO IX) izango dituzte arerio nagusiak.

Durangalde Racing elkarteko honako bikote hauek ere lehiatuko dira Gabirian: Oier

Gorrotxategi eta Ibon Sarasua (Peugeot 205 Rallye), Eneko Goiriena eta Patricia Lerin (BMW 325i) eta Daniel Benito eta Liher Basterretxea (BMW 325i).

Iñigo Olabegogeaokoetxea pilotua eta Iñaki Narbaiza koploutua (BMW M3), ostera, Abadiño Karting Taldeagaz lehiatuko dira. Bere mailan (5 kategoria) podiumean sartzea eta sailkapen orokorrean bost onenen artean geratzea dute helburu.

Gabiriako ibilbidea errei bakarrekota eta estua da. Errepi-deak hezetasuna izan ohi du, eta gidariak areketan arriskatuz saiatzen dira denbora irabazten.

## &gt; AGENDA

## &gt; FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**

**Durangoko Kulturala - Zalla**  
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

**OHOREZKO MAILA**

**Elorrio - Erandio**  
· Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Abadiño - Zaldúa**  
· Zapatuan, 16:45ean, Astolan

**HIRUGARREN ERREGIONALA**

**Zaldúa B - San Antonio**  
· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

**Iurretako B - Amorebieta B**

· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Iurretako-Orduña**  
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

## &gt; ARETO FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**

**Mallabia - Tolosala**  
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian

**EUSKAL LIGA**

**Abadiñoko Lagun - Kurutzaga**  
· Domekan, 11:50ean, Berrizko kiroldegian

**MAILA GORENA**

**Presion Break - Akelarre Bar Chopos**  
· Zapatuan, 17:15ean, Berrizburu kiroldegian

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Elorrioko B - Sumi Muguru**  
· Zapatuan, 15:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

**Sapuberri - Iurretako Dantzari**  
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

**BIGARREN ERREGIONALA**

**Mendibeltz - Pozgarri Adarve B**  
· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

**EMAKUMEEN LIGA**

**Sasikoa Durango - Muskiz**  
· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

## &gt; SASKIBALOA

**LEHENENGO MAILA (emakumeak)**

**Tabirako Baque-Aletico SN**  
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Anbotopeko saskibalo taldea - Basauri saskibalo taldea**  
· Zapatuan, 18:00etan, Tabirako kiroldegian

## &gt; PILOTA

**BIHARKO IZARRA TXAPELKETA**

- Bixintxo-Bolinaga / Agirre-Rezusta

- Santxo-Arratibel / Artola-Galarza

· Martxoaren 2an, 17:00etan, Mallabiko pilotalekuan

# ➤ Aisialdia

➤ **AMALURRA**



Eguaztenean Donostian egindako aurkezpena. Ezkerretik bigarrena, Juan Mari Totorika, Urkiola Landa Garapen elkarteak ordezkarria.

## Produktu ekologikoak salerosteko bideak aztergai

Urkiola Landa Garapen elkarteak mintegia eratu du hilaren 14rako; produktu ekologikoak eskuratzeko dauden moduak aztertu, eta bide horiek zabaltzeko aukerak asmatzea dute helburu

### ➤ MARKEL ONAINDIA

Urkiola Landa Garapen elkarteak "ideien laborategia" antolatu du martxoaren 14rako. Helburua, gaur egun produktu ekologikoak eskuratzeko dauden moduak aztertzea, eta etorkizunean bide horiek zabaltzeko egon ahal diren aukerak asmatzea izango da. Mintegia, 'Conexiones Improbables' izeneko proiektuaren barruan dago. Erakundeek, euren ideiak hartzaile edo bezeroekin partekatzea sustatu gura dute proiektu horren bidez. Mintegi horien aurkezpena eguaztenean egin zuten Donostian, eta bertan egon zen Juan Mari Totorika, elkarteak ordezkarria. Mintegietako bat garatu dute dagoeneko: Mallabiko Orbea enpresak otsailaren 14an egindakoa. Urkiola Landa Garapenak eraturako mintegia Berrizen izango da, elkarteak daukan egoitzan –udaletxe zaharra–, 16:30etik 20:00etara.

Mintegian, "ideien zaparrada" egingo dutela azaldu dute arduradunek.

"Hausnarketa dinamikoa eta parte-hartzailea egin gura dugu, etorkizunean kudeaketa ekimen berriak guztion artean sortzeko". Ekoizleak, kontsumitzaileak, sukaldariak, gurasoen elkarteak, kontsumo taldeak, banatzaileak, ikasleak, sindikatuak, lursailen jabeak eta eskola jantokien arduradunak batu gura dituzte, azaldu dutenez.

Nekazaritzako produktu ekologikoen ekoizle eta kontsumitzaileen arteko elkarlaneko proiektuak diseinatzeaz hausnartuko dute, adierazi dutenez. Eskualdeko proiektuen gestioaren, finantziarioaren eta partaidetzaren inguruko ideia berritzaileak bilatzen ahaleginduko dira, eta prozesu horretan pentsakera kolektiboak zelan aprobetxatu ahal diren aztertuko dute.

### Aldatzeko beharra

Conexiones Improbableseko zuzendari Roberto Gomezek aurkezpenean adierazi zuen, hemendik aurrera ezer ez de-

la berdina izango, egun bizi dugun krisi ekonomiko eta egoera berriari egokitzeko beharrezkoa den aldaketa gogoan. Horregatik baieztatu zuen berrikuntza dinamikak ere aldatu egin behar direla: "Berrikuntza ez da soilik erakunde handien kontua".

### Izena emateko aukera

Berrizko mintegian izena emateko interesa daukatenean, [ksimon@urkiola.org](mailto:ksimon@urkiola.org) helbidera idatzi behar dute mezu elektroniko bat. Egun berean, Lea-Artibaiako Landa Garapen elkarteak ere mintegi bera eskainiko du Markina-Xemeinen. Izan ere, landa garapeneko elkarte biek sortutako Oiz Egin plataformaren bidez garatuko dira mintegiak. Hori dela-eta, batzarrak amaitzean, Mallabiko Trabaku-Goiko jatetxean elkartuko dira guztiak. Antolatzaileen arabera, jatetxean afari-merienda egingo dute, eta batzarretan landutako ideiak partekatzeke aukera edukiko dute.

Mintegia Berrizen izango da, elkarteak daukan egoitzan, 16:30etik 20:00etara

"Hausnarketa dinamikoa eta parte-hartzailea egin gura dugu", azaldu dute antolatzaileek

Produktu ekologikoen ekoizle eta kontsumitzaileen arteko elkarlaneko proiektuak diseinatzeaz hausnartuko dute

laguntzaileak



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa  
Mancomunidad de la Merindad de Durango

# ALKIMAX


Alquilamos soluciones

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.net

JASOGAILUAK



PRODUKTU BERRIAK



www. alkimax.net







# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Martxoaren 2an, 22:30etan, Plateruenean**

## Capsula

David Bowieren bertsoak joko ditu Argentinan sortu eta Bilbon finkaturiko Capsula taldeak, Plateruenean, bihar. Aurretik, Sexy Sexers edo Sumision City Blues taldeetan jardundako Joseba B. Lenoir gitarristak joko du.

### Antzerkia

#### :: BERRIZ

**Martxoaren 2an, 20:00etan** Los Guggenheim taldearen **'Más pequeños que el Guggenheim'**, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

**Martxoaren 2an, 20:00etan** Ballet Carmen Rocheren **'El sueño de una noche de verano'**, San Agustinen.

**Martxoaren 3an, 17:00etan** Irrien lagunak **'Mundutiik plazara, plaza-tik mundura'**, Plateruenean.

#### :: ELORRIO

**Martxoaren 8an, 22:00etan** Teatro A Cuestas taldearen **'Locas'**, Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

**Martxoaren 1ean, 21:00etan** Los Guggenheim taldearen **'Más pequeños que el Guggenheim'**, Zornotza Aretoan.

### Erakusketa

#### :: BERRIZ

**Martxoaren 21era arte, Isabel Farguesen pinturak**, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

**Martxoaren 3ra arte, Jose Felix Madariagaren argazkiak**, Museoan.

#### :: ELORRIO

**Martxoaren 20ra arte, Felix Anaut margolariaren lana**, Iturri kultur etxean.

### Musika

#### :: DURANGO

**Martxoaren 1ean, 22:30ean Alvaro Llerena Martinez eta Ovi Guarajé**, Plateruenean.

**Martxoaren 2an, Capsula + Joseba B. Lenoir**, Plateruenean.

### Berbaldia

#### :: IZURTZA

**Martxoaren 6an, 17:00etan** Ertzaintzaren berbaldia, **'Prevención de robos en las personas mayores'**, jubilatuen etxean.

### Jaialdia

#### :: DURANGO

**Martxoaren 8an, Emakumeen nazioarteko eguna.** Parte-hartzaileak: Durangoko plataforma feminista, 'Mujeres de armas tomar' kabareta, Dj Bego eta Monica, Plateruenean.

#### :: ELORRIO

**Martxoaren 2an, Gaztetxearen urteurrena: 11:00etan, Umeen jolasak. 13:00etan, Karrika taldearen Klariona, plazan. 13:00etan, luntxa, musika, txupina. 13:30ean, trikipoteoa, gaztetxean hasita. 14:00etan familia argazkia. 15:00etan bazkaria, Kiroldegian. 18:00etan kalejira, Kiroldegian. 19:30ean kontzertu akustikoa, Kokein, Txabolakumeak, Gorantza Erori... 20:00etan Logela multimediaren mapping ikuskizuna, gaztetxe kanpoan. 22:30ean Iheskide + Ze Eskatek + Willis Drummond, karpán. 00:00etan Dj Bull.**

### Bertsoak

#### :: DURANGO

**Martxoaren 7an, 19:00etan Miren Amuriza, Aitor Bizkarra, Unai Iturriaga eta Igor Elortza**, bertso Korrika saioan, Plateruenean.

### Zinema

#### :: BERRIZ

**Martxoaren 3an, 17:00etan Blackie & Kanuto**, Kultur Etxean.

### Irteera

#### :: IURRETA

**Martxoaren 9an, 12:00etan Sagardotegira irteera**, Maspetik irtenda. Izen-ematea: Gauargi tabernan.

### Lehiaketa

#### :: DURANGO

**Martxoaren 8ra arte, Maketa Lehiaketa.** Parte hartzeko, 3 kanta bidali daitezke: [maketa.udalgaztedi@gmail.com](mailto:udalgaztedi@gmail.com).



#### :: DURANGO | ZUGAZA

##### 1. aretoa: **Hermosas criaturas**

Zuzendaria: R. LaGravenese

- barikua 1: 19:00/21:30
- zapatua 2: 19:30/22:30
- domeka 3: 19:30
- astelehena 4: 19:00/21:30
- martitzena 5: 20:00

##### UMEEN ZINEMA

**Blackie & Kanuto**

Zuzendaria: Francis Nielsen

- zapatua 2: 17:00
- domeka 3: 17:00

##### 2. aretoa: **Hansel y gretel 3D**

Zuzendaria: Tommy Wirkola

- barikua 1: 19:30/22:00
- zapatua 2: 19:00/22:00
- domeka 3: 19:00/21:00
- astelehena 4: 19:00/22:00
- martitzena 5: 20:00

##### El gran milagro

Zuzendaria: Bruce Morris

- zapatua 2: 19:00
- domeka 3: 17:00

#### :: ELORRIO | ARRIOLA

##### Bestias del sur salvaje

Zuzendaria: Benh Zeitlin

- zapatua 2: 22:30
- domeka 3: 20:00
- astelehena 4: 20:00

##### UMEEN ZINEMA

##### The Wish Fish

Zuzendariak: Ivan Oneka eta Gorka Vázquez

- domeka 3: 17:00

#### :: ZORNOTZA

##### La Trama

Zuzendaria: Allen Hughes

- zapatua 2: 19:30/22:30
- domeka 3: 20:00
- astelehena 4: 20:00

##### UMEEN ZINEMA

##### El diario de Gregg

Zuzendaria: T. Freudenthal

- zapatua 2: 17:00
- domeka 3: 17:00

##### ZINEKLUBA

##### Tournèe

Zuzendaria: M. Amalric

- martitzena 5: 20:00

## MARTXOKO AGENDA



2,3,9,10

**IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA**  
09:30 Hainbat ibilbide (69-88 km).

2

**EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA**  
10:00-14:00 eta 15:30-19:30. Maitena Monroy.

2,9

**IURRETAKO KIROL TALDEA** 17:00etan.  
2an, Iurretako-Derio, 9an Gatika-Iurretako

4,8  
12,13

**HERRI BIBLIOTEKA**  
4an, 18:15 Emakumeen literatur tailerrak  
8an, 17:00/18:00 Haurtxoen irakurketa kluba  
12an, 18:30 Helduen irakurleen txokoa, gaztelaraz  
13an, Azalerako ipuinak 17:00(0-18hile)/18:00(18-36)  
19:00 Helduen irakurleen txokoa, euskeraz

4,9

**ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA**  
4an, 18:30 Ikastaroa: Refuerzo del suelo pélvico  
9an, 21:30 Emakumeentzako afaria Ikuspegin.  
Autobusa 20:45ean. Tel.: 616 490 506

5

**GIZARTE ONGIZATEA**  
19:00 Hitzaldia: "Actividades desde la mujer para la mujer: importancia de la formación"

8

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**  
18:30 Adierazpen Instituzionalaren irakurketa  
19:00 Bideoforuma: "FROZEN RIVER"

### OHARRAK

-Martxoak 8ra arte Durangaldeko Maketa Lehiaketa  
-Erakusketa: "Actividades desde la mujer para la mujer: importancia de la formación"



**Martxoaren 2an, 20:00etan, San Agustinen**

## SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO

Shakespeare-ren antzezlanaren moldaketa da, bihar, Durangoko antzokian ikusgai izango dugun hau. Dantza da ikuskizunaren ardatza.

# Denborapasak

## > ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org  
eguztieneko 17:00ak arteko epea

<b>1</b>	7	4			
	1		6 3		
				9 8	
4			7 5	1	
5 6					
			8		7
6 3		8		5	
		1		2 3	
8		5			4



> **Oier Domarco Gerrikagoitia** 30 urte bete zituen otsailaren 22an. Melon zorionak familia guztiaren partez! Musu pila bat!



> Zelan zaintzen zaren... Hainbeste pernil zuretzako bakarrik... Neu ere apuntatzen naiz jateko beste zerbaitekin! Zorionak **Felix!**



> **Haizeak** 3 urte beteko ditu martxoaren 4an, eta **Igorrek** 5 urte bete zituen otsailaren 27an. Zorionak bioi denon partez!



> Amama **Terek** 101 urte bete ditu! Zorionak! Besarkada handi bat eta mosu potolo bat familia osoaren partez!



> Nolakoa zaitugun, bizitza! Guztiok ondo nahita, xelebre gabiltza ezin aurkitu neurriaren giltza... Orain zuen garaia... Zapatuen erueguz aurrera asmo danak! Zorionak!



> Martxoaren 5ean **Luis Mari Ugaldeak** urteak beteko ditu. Zorionak danon partez, batez ere Elene, Naia, Auritz, Anartz, Paul, Eki eta Izarren partez!



> Zorionak bikote! Azkenean heldu da eguna... ta han egongo gara zuekin ospatzeko! Oso ondo pasa opor motz hauetan! Mosu pilo!a!



> Durangoko Herri Bilguneak hilero zozkatzen duen urdaiazpikoa Bego Arroyori tokatu zaio. Zorionak!

<b>2</b>			7	8 4	
		4	8		3
6					
1 6		8	2		
		1 4			
	9 4		1		
		2	6		
	7	9	5		
9	3				



> **Saioa** eta **Olatzek** 25 urte bete dituzte otsailaren 27an eta 29an. Koadrillakoen partez, zorionak eta mosu handi bat bioi!



> Otsailaren 21ean jaio zan **Beñat Ereñaga Fundain**. Zorionak aitaxo eta amatxori eta musu handi bat izeko Aneri!

**Abadiño San blasetan txahal eder baten zozketa**  
txahala edo 1.800euro

zenbaki saritua:  
**6730**

*Herrira*

<b>3</b>	8			6 1
	9 2	1		
	6		5	4
1			6 3	
		9 8	5	
	2 4			
		7 4		6
		2		8
3 7 4				



> **Leire Cenik** eta **Ander Azpik** urteak beteko dabez oingo astien! Zorionak bioi eta mosu handi bana! Barikuen ospatuko dogu eta martxoaren 16an bazkaria Garain!



> Astelehenean **Elene Ugaldeak**, etxeko neskatilak 11 urte beteko ditu. Alai eta kirolari jarraitu! Auritz, aita eta ama.

**Maide**  
Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Zorionak Hugo! Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Txartela gura duzuenean jaso dezakezue, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga 9an.

## > BOTIKAK

- BARIKUA, 1**  
09:00-09:00  
• **ETXEBARRIA** (MONTEBIDEO 2 - DURANGO)  
09:00-22:00  
• **EGAÑA** (BEKOETXE 4 - ZALDIBAR)
- ZAPATUA, 2**  
09:00-09:00  
• **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)  
09:00-13:30  
• **DE DIEGO** (INTXAURRONDO 22 - DURANGO)  
• **ETXEBARRIA** (MONTEBIDEO 2 - DURANGO)  
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)  
• **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO)  
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)  
• **UNAMUNZAGA** (MURJETATORRE 2C - DURANGO)  
• **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)  
• **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA** (BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)  
• **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)
- DOMEKA, 3**  
09:00-09:00  
• **DE DIEGO** (INTXAURRONDO 22 - DURANGO)
- ASTELEHENA, 4**  
09:00-09:00  
• **UNAMUNZAGA** (MURJETATORRE 2C - DURANGO)  
09:00-22:00  
• **BENGOA** (JOSE ANTONIO AGIRRE 1 - ATXONDO)
- MARTITZENA, 5**  
09:00-09:00  
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
- EGUAZTENA, 6**  
09:00-09:00  
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)  
09:00-22:00  
• **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)

## > TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS DEIAK ..... 112  
GURUTZE GORRIA ..... 94 681 09 49  
OSAKIDETZA ..... 94 600 72 00  
ERTZAINITZA ..... 94 466 93 00
- > GARRAIOAK**
- EUSKOTREN ..... 902 54 32 10  
BIZKAIBUS ..... 94 448 40 80  
PESA ..... 902 10 12 10  
CONTINENTAL AUTO ..... 945 286 466
- > TAXIAK**
- ABADIÑO ..... 94 681 44 70  
MATIENA ..... 606 459 988  
DURANGO GELTOKIA ..... 94 681 10 01  
ELORRIO GELTOKIA ..... 94 682 00 40  
J.L. URIARTE ..... 670 402 002  
I. ESTEBEZ ..... 670 678 273  
M. GALEANO ..... 670 409 330  
IURRETA ..... 94 620 15 65  
TAXI AUZUNEA ..... 688 618 690  
BERRIZKO AUZO TAXIA ..... 620 022 800

## > EGURALDIA

2° 10° ZAPATUA ☁️

2° 16° DOMEKA ☀️

6° 16° ASTELEHENA ☁️

9° 14° ASTEARTEA ☁️

## > AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA

**Abadiño (Traña-Matienea)**  
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera

**Durango**  
Zapatu goizetan

**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

Letxuga ..... 0,80 euro  
Porruak ..... 1,80 euro/tx  
Azenaoriok ..... 1,50 euro/tx  
Azalga ..... 2 euro/kg  
Aza ..... 2 euro/kg  
Koliflora ..... 3 euro/kg  
Kalabaza ..... 2,20 euro/kg  
Kiwia ..... 3 euro/kg  
Tomate kontserba ..... 3,90 euro  
Arrautzak ..... 3,80 euro/dz  
Idiazabal gazta ..... 17 euro/kg  
Espeltzako ogia ..... 3,60 euro

2	8	3	5	4	7	9	6	1
4	5	9	2	6	1	8	7	3
7	6	1	8	9	3	5	2	4
1	4	8	7	5	2	6	3	9
6	3	7	9	1	8	4	5	2
5	9	2	4	3	6	1	8	7
8	2	5	1	7	4	3	9	6
9	1	6	3	2	5	7	4	8
3	7	4	6	8	9	2	1	5

L	Z	8	9	T	S	E	I	6
I	S	T	E	6	8	9	L	Z
6	E	9	I	Z	L	S	8	T
8	L	I	Z	S	9	T	6	E
9	6	E	T	L	I	Z	S	8
S	T	Z	6	8	E	L	9	I
Z	I	L	S	E	6	8	T	9
E	9	S	8	I	T	6	Z	L
T	8	6	L	9	Z	I	E	S

9	T	I	E	6	S	Z	L	8
8	E	Z	9	L	I	S	T	6
6	S	L	T	8	Z	I	E	9
L	9	E	8	S	T	6	Z	I
T	6	8	Z	I	E	L	9	S
I	Z	S	L	9	6	E	8	T
Z	8	6	I	T	L	9	S	E
S	L	T	6	E	9	8	I	Z
E	I	9	S	Z	8	T	6	L


**Orain eta hemen**

Barriro be, ase ezindako gosea dauke banketxeek eta dirudunek. Ezin da gure dirutik behar adina diru emon banketxei, gero, bankuek eurek, bezeroak kale gorrian uzteko, etxe eta ondasun guztiak kenduta. Banketxeek hondoa jo behar badaue, jo dagiela. Ez daue beste inor baino begirune handiagoa merezi.

Presoak gero eta okerrago dagoz. Ezin dira bere etxetik ahal dan urtineneko kartzeletan zarratu, egin eta egin ez dabezen ekintzak torturapean leporatuta, eta pena bete ostein urte gehiago luzatu. Ostera, beste batzuk hilketak izanda be, izena aldatu eta poliziaren laguntzaile jarri, edo penaren erdia bete barik lasai-lasai euren etxeetan. Batzuek gradu aldaketa, etxeratzea eta benta-ja guztiak erraz-erraz lortzen badabez, zergatik ez besteek be. Batzuk ez dira besteak baino errudunago.

Gero eta menderatuago gagoz. Behar dogun janari gehiena inork egindakoa da, ez daki-gu zer jaten dogun eta nondik nora ibilia dan. Behar dogun erregai gehiena inork egin, ekarri, prezioa ezarri, saldu eta enparauak egindakoa da. Beharra be, ez dago gure esku, gero eta urriagoa da. Joan dira pikutara beharleku ugari eta duinak. Bada garaia gure beharrak guk geuk lortu, egin, sortu daiguzan; inoren mende egon behar barik.

Ailegatu da herri izateko garaia be. Ezin gara errege ardura bako baten menpe egon, eta bere inguruko alproja guztiak mantendu. Erregeak edo-zer gauza eginda be, ez dauka erantzun beharrik. Ardura bako bat da. Indarrak batzeko kapazak izan behar dogu.

*“Herri bat dugu osatzen.  
Eta gure zabarkeriz ez  
daigun utzi hondatzen  
Bagare, bagera,  
bagire, bagara”...*

# “Sukaldari jantzita danborra jo dugu Shangaiko kaleetan”

Bikotekideagaz urte bi daramatza Shanghai; bertako Euskal Etxeko presidentea da iurretarra.

**> AMAIA UGALDE**

Txinera asko gustatzen zaio Garazi Uriarteri, eta bada-bil astiro-astiro ikasten. Bikotekideari lanetik Shanghaira joateko eskaintza egin ziotenean, esperientzia polita izango zela pentsatu zuten. Urte bi daroatzate bertan, eta beste hiru urte egiteko esperantza dute. Euskal Etxeko presidente kargua hartu du aurtan Uriarterek, eta kontatu duenagatik, bere saltsan dabilela nabaritzen da.

**Noiztik zaude Shanghai?**

Maiatzean urte bi egingo ditut. Hona etortzeko aukera nire mutilaren bidez etorri zen. Lan kontuak direla-eta, Shanghaira etortzea proposatu zioten, eta biontzako esperientzia polita izango zelakoan, baiezkoa eman genuen. Horregatik izan ez bazen, inoiz ez zitzaigun otuko honeraino etortzea.

**Zelako hiria da?**

Egia esan, ez da batere polita; denbora gutxian asko handitu da eta denetik ikusten da hemen. Hasieran, arrantzaleen herri bat zen Shanghai, eta orain Txinako hiririk garrantzitsue-

netakoa da ekonomikoki. Gustura bizi gara, hasieran beldur pika bat eduki genuen aldaketa dela-eta, baina hain handia da hiria, denetariko jendea dagoela; bizitzeko leku kuriozosa da.

**Zelakoak dira shanghaiarrak?**

Oso oso desberdinak gara, denean; kulturatik hasita, jantzeko erara; jendearekin erlazioatzeko orduan, gidatzeko eran, jateko orduan... Txinako beste herrialdeekaz alderatuta, Shanghai hiri “matriarkala” dela esaten dute. Oso bakezaleak dira, eta delinkuentzia ez da asko ikusten hemendik.

**Euskaldunek topagunea daukazu Euskal Etxean. Ekintza asko edukitzen dituzue?**

Hilero, gutxienez ekintza bi egiten saiatzen gara. Uste dugu kanpoan bizitzen gauden euskaldunok horrelako gauzak eskertu egiten ditugula, baita denboraldi txiki baterako lanera datorren nor edo nor zein bisitan datorrenak ere... Aukera ona da batu eta bizimodua zelan doan elkarri kontatzeko eta ondo pasatzeko. Inork ez gaitu behartu honeraino

etortzera, baina hemengo egonaldia zelanbait errazteko, zer hobeto Euskal Herriko jendearekin inguratzea baino!

**Bertako presidentea zara. Egin-kizun bereziak daukazu?**

Lau juntakide berri gaude aurtan, eta bakoitzak teorikoki egin-behar bat badaukagu ere, praktikan, elkarri laguntzen ahalegintzen gara denok. Gainera, bik ikasi egiten dugu, eta beste biak behar-rean daudenez, bakoitza ahal duena egiten saiatzen da.

**Euskaldun asko batzen zarete?**

Inauteri eguna ospatu genuenean, adibidez, 50 bat lagun batu ginen. Shanghai bizi garen euskaldunetatik, gehienak behar-rean dabilta, eta beste asko ikasten gabilta, bai karreraren bat, bai txinera. Askok eta askok ama izateko aprobetxatu dute. Beraz, denetarik daukagu!

**Shangaitarrek badute zuen txokoaren berri?**

Euskal Etxea Shanghai barruan dagoen tanta txiki bat baino ez da, baina gure burua ahal den gehien ezagutarazten ahalegintzen gara. Ekintza asko Euskal Etxetik kanpo egiten di-

tugu, asko begiraten gaituzte eta batzuk galdetzer ere animatzen dira. Urtarrilean danborrada egin genuen, denok sukaldari jantzita, eta danborra jotzen Shanghaiko kaleetatik, martxoan Korrika egingo dugu... Egia esan, desinformazio handia dago baina beno, pazientzia handia daukagu nortzuk garen azaltzeko eta horri ekingo diogu.

**Zer egiten zaizu erakargarria euren kulturatik?**

Hizkuntza bera asko gustatzen zait, ikasteko oso gaitza izan arren, batez ere idazkera. Jatekoan ere, gauza asko gustura jaten ditut.

**Txinatik bidaiatzeko aukera eduki duzue?**

Egia esan, oso gutxi. Oporretan, Txinatik irtetea gustatzen zaigu. Txinan bertan, ama eta koadrilakoak etorri zirenean bidaiatu genuen. Orain dela urte bi ama etorri zen bisitan, bera bakarrik gainera. Aurtan koadrillakoak etorri dira... Etxeko inor datorrenean, beti da polita non bizi zaren erakustea, eta guk ere asko gozatzen dugu etxeok bertan ikusita!



## 10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) / MENU ERDIA 7,50€ / UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ / ZAPATUETAKO MENUA 13€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ / MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /



**10€**  
HAMARREKO  
MENUA

